ek!
eta kitto!
euskara elkartea
2026ko urriak 23 · 1413 zenbakia



IZAN IÑURRI
ELKARREKIN INDARTSUAGO

JMR
jmr.eus
943 57 41 03
jmr_eraikunzak
ERAIKUNTZA LANAK



OSASUN GIDA

DENTISTAK

Amaia Esnaola
ODONTOLOGIA
Fermin Calbeton 19- 3 ezk. Eibar
943 20 72 17 | 660 42 28 08
amaia@esnaolaodontologia.com

arat.
ZURE IRIBARRE ONENA
Toribio Etxebarria Kalea, 4
20600 Eibar
943 201 851
www.aratklinika.com
@arat_klinika

EIBAR HORTZ KLINIKA CLÍNICA DENTAL
Maitane G. Iñiguez
Odontologian Lizentziatua
San Agustín Kalea, 4 (Eibar)
943 537 076 · 688 884 808
info@eibarclinicadental.com
www.eibarclinicadental.com

BISTA·EDER
Hortz Klinika · Clínica Dental
T: 943 70 00 82
Bista Eder n.º 19, bajo
20600 EIBAR (Gipuzkoa)

GASTESI
Hortz-Klinika
Errebal, 9 - 1.C 943 70 00 90 / 688 68 96 02
Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / PADI
Ortodontzia / Inplanteak / Laser Teknologia

IRAZABAL
clínica dental
Irribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK
Blas Etxebarria, 3
Tfnoa. 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

MIGUEL SEMINARIO ZURIARRAIN ODONTOLOGOA
Odontologia orokorra
Ortodontzia
Inplanteak
Bidebarrieta, 7 - 1 esk. 943-702886

Odontologia Biologikoa
Miren Albistegi Sojo
Errebal, 14 - 1. B 678 48 57 52
malbistegi@gmail.com

SONRISALUD
Ortodontzia | Inplantologia
Hortz estetika | Tratamenduak
Toribio Etxebarria, 23 behea, EIBAR
943 23 14 14 · www.sonrisalud.es

RPS 74/23
Unzaga Plaza
Hortz Klinika - Clínica Dental
M. OROZCO VENTURA
Odontologian lizentziatua
Untzaga plaza 5, 4º I, Eibar
Tel. 943 70 23 85

GINEKOLOGIA

Dra. Laura Martinez
Dr. Alejandro Recas
GINECOLOGÍA EIBAR
- Ginekologia
- Obstetrizia
- Ekografia 3D / 4D
Tel: 659 56 13 65 San Juan, 5 - 2. D
dr.recas@gmail.com
dra.martinezgallardo@gmail.com
www.ginecologiaeibar.com

FISIOTERAPEUTAK

ANE MENDIA
FISIOTERAPIA ZENTRUA
ARRAGUETA, 20
TLF: 943 53 06 42

masajeak eta tratamenduak
FISIOTERAPIA IPURUA
EDURNE ETXEBERRIA
1089 kolegiatu zkia.
I. Ojanguren, 2 678 746 617

Julian Etxeberria, 7
688717529
muina
FISIOTERAPIA ZENTROA
Zoru Pelbikoa · Fisioterapia orokorra · Talde saioak
Irune Alberdi Sarobe

Jarrai iezaguzu!



Etxean joko du bihar Markel Martin 'Emeka' raperoak, Amañako Gazte Egunean. Auzoan jotzeaz, rap-az eta musikan izan duen eboluzioaz hitz egin digu sare sozialetan argitaratu dugun bideoan.

BIDEOAK YouTuben ikusgai

www.etakitto.eus

eta kitto! euskara elkartea

ARGITARATZAILEA
...eta kitto! Euskara Elkartea
HELBIDEA
Urkizu, 11 · 20600 Eibar
TELEFONOAK
943 20 67 76 / 943 20 09 18
ASTEKARIAREN E-MAILAK
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus
aldizkaria@etakitto.eus
ELKARTEAREN E-MAILAK
elkartea@etakitto.eus
normalizazioa@etakitto.eus
ERREDAKZIO-KONTSEILUA
Ana Aizpurua, Naia Aizpurua, Irati Alvarez, Ekhi Belar, Ander Fernandez, Silbia Hernandez, Irune Jaio, Yanire Sagredo,

ADMINISTRAZIOA
Naiara Esnaola
KOORDINATZAILEA
Ana Aizpurua
ERREDAKZIO-BURUA
Silbia Hernandez
DISEINU ARLOA
Irune Jaio
JATORRIZKO DISEINUA
Maku Oruezabal
HIZKUNTZA ARDURA
Maider Aranberri
PUBLIZITATEA
Ander Fernandez
TELEFONOA
943 20 67 76

AZALA
Izan Iñurri
BANAKETA-ARDURA
Idoia Labado
TIRADA
7.800 ale
INPRIMATEGIA
GERTU koop. (Oñati)
COPYRIGHT-A
...eta kitto!
LEGE-GORDAILUA
SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak lagundutako aldizkaria

EIBAR Udala | Ayuntamiento

GIPUZKOA Foru Aldundia
Babestutako hedabidea

Eskutitzak

Gure egoeraz nazkatuta

Unbeko errugbi zelaiarekin gertatzen hari dena ez zaigu batere normala iruditzen. Onddo batzuk direla eta errugbiko zelaia erabili ezinda gabiltza aspaldidanik. Arazo hau abuzturako konponduta egongo zela esan ziguten, baina arazo bat edo beste, aitzakia bat edo beste egoera berean jarraitzen dugu. Hori dela eta, aurredenboraldia aspaldi pasata, denboraldia ere hasi dugu eta oraindik ezin dugu gure zelaian ez jokatu ezta entrenatu ere. Ez dakigu gure udaletxeko agintariek errugbia ezagutzen duten edo ez, baina kirol honek bere berezitasunak ditu eta horiek lantzeko gure zelaia beharrezkoa da eta ez Unbeko futboleko zelai erdi bat. Denboraldia jada hasi dugu eta etxeko partiduak etxetik kanpo jokatu behar izan ditugu. Udalaren jarrera oso lotsagarria eta penagarria da, kirol honek jada jarraitzaile gutxi ditu eta horrelako oztopoak jartzeak ez dio batere mesederik egiten.

Egoera hau lehen bailehen konpontzea espero dugu.

Eibar Rugby Taldeko senior mutilak

XXII. Pintxo Lehiaketa, Ruben "Erro" beti gogoan

Urriaren 28 eta 29an, Eibarko kaleak pintxoz eta giro onez beteko dira berriz, Arrate Kultur Elkarteak antolatutako XXII. San Andres Pintxo Lehiaketa dela eta.

Urtero bezala, lehiaketak herriko tabernarien sormena, lana eta parte-hartzea izango ditu protagonista. Baina ekimen hau ez litzateke posible izango urte guzti hauetan beraien denbora, gogoa eta ilusioa eskaini duten pertsonen laguntzarik gabe.

Horietako bat izan da Ruben "Erro", hainbat urtez epaimahaikide aritu dena. Bere gertutasun, inplikazio eta konpromisoa ezinbestekoak izan dira lehiaketa aurrera ateratzeko. Aurten, zoritxarrez, faltan sumatuko ditugu bere aholku, iritzi eta irribarrea.

Arrate Kultur Elkartetik eskerrik beroenak eman nahi dizkiogu urte hauetan gurekin partekatutako denbora, egindako lana eta eskainitako laguntzagatik. Elkarrekin bizitako uneak maitasunez gogoratuko ditugu eta utzi duen arrasto eta hutsunea handia bada ere, beti izango du leku berezi bat gure artean.

Badakigu aurtengo edizioa berezia izango dela guretzat, baina argi daukagu omenaldi ederra litzatekeela Eibarko kaleak bete eta herriko tabernek prestatutako pintxoak dastatuz denon artean lehiaketaz gozatzea. Horregatik, urriaren 28 eta 29an eibartar guztiak kalera ateratzera animatu nahi ditugu. Hurbildu, ederra izango da eta!

"Erro", eskerrik asko bihotz-bihotzez bidelagun izateagatik. Aurtengo Pintxo Lehiaketan, bereziki, gogoan izango zaitugu.

Arrate Kultur Elkartea

ORDU ALDAKETA

Asteburuko zapatutik domekarako (urriak 25) goizaldeko 03:00ak heltzean, erloju guztiak ordubete atzeratu egin beharko ditugu, 02:00etara.
Beraz, ofizialki ordubete gehiago izango du asteburuko domekak. Neguko ordutegiak martxoaren 27ra arte iraungo du, udakoa berriro indarrean jarri arte.



Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

PUPU. ➜ Ume-hizkeran, mina. "Pupua egin detsu zatar haundi horrek!". Mugagabean ere erabiltzen da. "Kontuz, ume, pupu hartu barik!".
PURRA. ➜ Oiloa, ume-hizkeran. "Etorri purrak ikustera!". Oiloei deitzeko. Normalean errepikatuta eta bokala luzatuta. "Puurra-puurra! ziharduen oillueri jana emoteko".

1969

Haurra Amaña auzoari begira

Ego erreka estaltzeko lanak egin aurretik, herria alde batetik bestera nola zeharkatzen zuen ikusteko aukera zegoen, eta zubi ugari egon ziren. Gaur egun Amañarako errepidea denaren azpitik igarotzen da erreka.
FOTO PLAZAOLA



Farmaziak

BARIXAKUA 23
EGUNEZ | Lekunberri (Isasi, 31)

ZAPATUA 24
EGUNEZ | Castaño (J. Etxeberria, 7)

DOMEKA 25
EGUNEZ | Elortza (Juan Gisasola, 18)

ASTELEHENA 26
EGUNEZ | Castaño (J. Etxeberria, 7)

MARTITZENA 27
EGUNEZ | Mendinueta (Urkizu, 6)

EGUAZTENA 28
EGUNEZ | Elortza (Juan Gisasola, 18)

EGUENA 29
EGUNEZ | Zuluera (San Agustin, 5)

BARIXAKUA 30
EGUNEZ | Zuluera (San Agustin, 5)

GAUEZ BETI, 2026an,
Elortza (J. Gisasola, 18)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Mª Montserrat Yraolagoitia Kruzelegi.** 66 urte. 2026-10-14.
- **Luis Montero Baz**. 87 urte. 2026-10-18.
- **Manuel Murillo Rico.** 88 urte. 2026-10-18.
- **Maximino Martinez Garcia.** 85 urte. 2026-10-19.



Aste honetan hasi dira klaseak Esperientzia Eskolako 22. promozioko ikasleentzat

S.H. Aurreko barixakuan aurkeztu zuten Debabarreneko Esperientzia Eskolako 22. promozioa, Armeria Eskolak hartu zuen ekitaldian: eskualdean (Eibarren, Mendaron, Deban eta Ermuan) bizi diren 15 ikaslek osatzen dute.

Martitzenean hasi zituzten klaseak eta, maiatzera bitartean, ikasleek astean hiru egunetan egingo dituzte jarduerak: martitzen eta eguaztenetan, 09:30etik 12:30era, Torrekuako gizarte zentroan, Udalak lagatako ikasgelan; eta eguenetan, berriz, Armeria Eskolan, 10:00etatik 12:00etara.

Horrekin batera, Ikastenen ohiko jarduerak ere hasi dira. Besteak beste, senderismoa, joskintza eta puntua, luzaketak eta antzerki-taldea izango dira aukeran. Etengabeko prestakuntzaren barruan, hitzaldiak, tailerrak eta kultur jarduerak ere izango dituzte, baita Kaleetan Kantuz ekimena eta aurretiazko borondateen dokumentuari buruzko informazio-zerbitzua (Agurtzen izenekoak) ere.

Lanbide Heziketako ikasleek Gabonetarako hamar erakusleiho apainduko dituzte

S.H. Eibarko hamar saltokiren erakusleihoak diseinatu eta apaintzeko programa jarri dute martxan Eibarko Udalak, Uni Eibar-Ermuak eta Eibarko merkatarien elkarteak eta Gipuzkoa Merkataritza federazioak. Ekimenaren bidez, Lanbide Heziketako Merkataritza arloko ikasleek prestakuntzan ikasitakoa benetako lan-ingurune batean aplikatzeko aukera izango dute, eta herriko saltokiek, berriz, Gabonetako kanpainarako erakusleihoak egokitzeko laguntza jasoko dute.

Programan parte hartu nahi duten dendek urriaren 29rako eman beharko dute izena, hitzarmenaeibarkoudala@uni.eus helbidean. Informazio gehiagorako 943 708 451 telefonora deitu edo ekonomia@eibar.eus-era idatzi.

Azaroaren 11ko greba orokorra antolatzeko hainbat hitzordu deitu dituzte Debabarrenean

S.H. Azaroaren 11ko greba orokorra antolatu eta haren nondik norakoak azaltzeko asmoz, Gazte Koordinadora Sozialistak (GKS) deitu dituen gazte langileen asanbladen lehen hitzorduak gaur (urriak 23) izango dira, Eibarko Kultun (18:30ean) eta Ermuko Lobiano Kulturgunean (18:30ean). Bihar, urriak 24, Debako Gaztetxean (11:30ean) elkartuko dira.

Eta Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatu Sozialistak ere azaroaren 11ko greba antolatzeko asanbladak deitu ditu eskualdean. Urriaren 29an Ermuko Herriko Plazan (18:30ean) egingo dute lehenengoa; urriaren 31n, berriz, Debako Plaza Berrian (11:30ean) eta Eibarko Untzagako harmailetan (12:00etan) elkartuko dira.

Etxebizitza Sindikatu Sozialistak jakinarazi duenez, grebaren antolaketan lagundu edo parte hartu nahi dutenek 631 331 714 zenbakira (bakarrik WhatsApp bidez) jo dezakete.





Kontsumo Arduratsu eta Ekologikoaren Azoka Errebalen

S.H. Eibarko Kontsumo Arduratsu eta Ekologikoaren IV. Azoka egingo dute bihar, zapatua, Errebal Plazan, 10:30etik 14:30era. Eibarko Udalak, Biolurrek, Debemenek, ENEEK-Ekolurrak, Egoaiziak eta Aldatzen elkarteak antolatu dute azoka, kontsumo arduratsuagoa sustatu eta tokiko ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko harremana indartzeko asmoz. Horretarako, bertako eta sasoiko produktuak erosteko aukera izango da, baita ekoizpen ekologikoaren, bidezko merkataritzaren eta ekonomia solidarioaren inguruko ekimenak ezagutzeko ere.

EKOgosariak musikarekin

Bestalde, Lusai tabernak 50 EKOgosari eskainiko ditu bihar, Sofia Machinen zuzeneko musikarekin lagunduta (gosarirako txartelak bihar banatuko dituzte, baserritarrei 15 eurotik gorako erosketak egiten dizkietenen artean). Eta, horrez gain, 12:00etatik 14:00etara, Miriam Chefintegrativaren *EKOerrezetak,* haurrentzako tailerrak (txapa eta pintura, 11:30/13:30), *Patata beroa* dinamika (12:00), REAS Euskadiren *Bizitza erdigunean, ekonomia solidarioari buruzko begirada feminista*' erakusketara bisita gidatua (11:30) eta beste hainbat jarduera egingo dira.

Etxean energia neurtzeko kit-a

Debegesak, bestalde, etxebizitzen eraginkortasun energetikoa neurtzeko kit-aren berri emango du, eta erabiltzen ez diren telefono mugikorrak jasotzeko gune bat ere jarriko du azokan.

Goiz osoa beteko duen egitaraua 14:00etan amaituko da, azokako produktuekin osatutako otarren zozketa eta kartel-lehiaketako sari-banaketarekin. Aurtengo kartel lehiaketarako gaia *Eraldatzen duten haziak: emakumeak eta bizitzari eusten dioten eskubideak* izan da, eta aurkeztu dituzten lan guztiak azokan ikusgai ipiniko dituzte.



Erdi Aroko Azoka Xacobea egingo da urriko azken asteburuan Eibarren

S.H. Erdi Aroko giroan murgiltzeko aukera izango dugu datorren asteburuan, urriaren 30etik azaroaren 1era bitartean Untzagan egingo den Erdi Aroko Azoka Xacobearekin.

As Burgas Galiziako Etxeak eta *Timbapirata Events* Durangoko enpresak antolatu duten egitarauak hiru egunak beteko ditu: barixakuan goizeko 11:00etan zabalduko dute azoka, gauera arte. Zapatuan ordubete aurretik, 10:00etan hasiko da programazioa, eta domekan berriz ere 11:00etan zabalduko da azoka, gauera arte.

Egitarauak Galiziako tradizioa eta Erdi Aroko iruditeria uztartuko ditu, adin guztietako herritarrei zuzendutako proposamen ugarirekin. Erakustaldiak egiteko tailerrak eta bestelako jarduerak bilduko ditu azokak, baita kaleetan zehar ibiliko diren musikariak, ipuin-kontalariak, antzezleak eta pertsonaia fantastikoak ere. Atzoko aurkezpenean aurreratu zutenez, "besteak beste, armagin ibiltariak Erdi Aroko oinezko zaldunen eta mertzenarioen janzkerak erakutsiko ditu. Amalurraren istorioak eta Gzarkuk orkestra-gizon misteriotsuaren nahiz Sebastopoleko organo-jotzailearen agerraldiak ere izango dira".



Tripontziak ekimen gastronomikoaren hamairugarren edizioa egingo da azaroan

S.H. Azaroaren 6tik 29ra, Debabarrena eskualdeak Tripontziak ekimen gastronomikoaren hamairugarren edizioa ospatuko du, Debegesa Garapen Agentziak eta Debabarreneko Klub Gastronomikoak antolatuta. Edizio honetan, Eibarko Baratze Taberna eta Bulebú, Elgoibarko Belaustegi eta Txarriduna, Mallabiko Trabakua Behekoa eta Debako Hiru Bistro, Itsaslabarrak eta Urgain jatetxeek hartuko dute parte, eta sasoiko eta tokiko produktuetan oinarritutako platerak eskainiko dituzte, jatetxe bakoitzak bereak. Menuak, 39 eurokoak dira eta barne hartzen ditu aperitibo bat, sarrera, bi plater nagusi (haragia eta arraina) eta Mendaroko txokolatearekin egindako postrea. Ogia, kafea eta ardoa ere menuan sartzen dira, eta jatetxe guztiek ardo bera eskainiko dute menuekin: Familia Valdelana upeltegiko ardo zuria eta ardo beltza. Bestalde, 6 euroko gehigarri baten truke, txakolinaz gozatu ahal izango da.

Jatetxe bakoitzak eskainiko duen menua debabarrenaturismo.com webgunean ikus daiteke.

Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoa Errebalera eraman dute

S.H. Eibarko Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoa (KIUB) Errebal Plazako lokal batera lekualdatu dute aste honetan, eguaztenean. Horrela, udal zerbitzu hori ikusgarriago egin nahi du Udalak. Beraz, aurrerantzean, KIUBek Errebal Plazako lokalean emago du zerbitzua. Arreta emateko ohiko ordutegia astelehenetik ostiralera da, 09:00etatik 14:00etara, aurretik hitzordua hartuta (943 20 38 43 telefonoan, posta elektronikoan, edo udaletxeko atezaintzan).

Osasun digitalari buruzko prestakuntza-saioak eta irakurketa-gida familientzat

S.H. Altxa Burua elkartearen ekimenez, eta DOITU programaren bidez, osasun digitalari buruzko bi prestakuntza-saio eskainiko dituzte, "familiei tresnak eta aholku praktikoak emateko. Teknologien erabilerak haur eta nerabeen ongizatean, ikaskuntzan eta garapenean duen eragina ezagutuko dugu, etxean ohitura digital egokiak sustatzeko". Telmo Lazkano eta Edurne Emazabel adituak arituko dira saio hauetan. Lehen saioa urriaren 27an (martitzena) izango da, eta bigarrena abenduaren 9an (eguaztena). Portaleko areto nagusian egingo dira biak, 18:00etan. Antolatzaileek parte hartzera deitu dituzte familiak.

'Teknologia eta osasun mentala' irakurketa-gida

Horrez gain, Eibarko Udal Liburutegiak eta Altxa Burua Eibar taldeak *Teknologia eta osasun mentala* irakurketa-gida prestatu dute. Liburuak, haur eta gazteentzako irakurketak, ikus-entzunezkoak eta baliabide digitalak, gaiaren inguruan informatzeko eta hausnartzeko. Gurasoei bereziki zuzendutako gida izan arren, gaian interesa duen edonorentzat erabilgarria da.



FUNEUSKADI
Grupo Asistea
FUNERARIA MUGICA
Funeuskadi
TANATORIO EIBAR
TANATORIO CREMATORIO ELGOIBAR
24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com
Eibar:
Otaola, 27
Elgoibar:
Xixilion, s/n. SIGMA Industrialdea
(Olasoko hilerriaren ondoan)
Eibarko bulegoa:
Bidebarrieta, 20
Ermuako bulegoa:
Marqués de Valdespina, 16
Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

Maite Unzueta Otxotorena

3. URTEURRENA
2023/10/22



Bizitzako argitara ekarri gintuzun eta kolorez bete zenuen dena, zure maitasun, goxotasun eta pintzelez. Iada ikusten ez zaitugun arren, beti bezala sentitzen zaitugu Ama eta Amama

- ETXEKOAK -

Ignacio Zamacola Zubia

5. URTEURRENA
2021/10/23



"Gure bihotzetan beti maite izango zaitugu"

- ETXEKOAK -

Luis Montero Baz
(Itziar Aristondoren alarguna)

2026-10-18



"Aita, orain amarekin batera, elkarrekin eskutik hartuta, hala ikusten zaitugu gure bihotzetik. Eskerrik asko eman diguzunagatik, maite zaitugu"

Mila esker, bihotzez,
une latz hauetan gurekin egon zareten guztioi.

- ETXEKOAK -

Urtzi Abantzabalegi Arantzabal

3. URTEURRENA
2023/10/23



"Betirako gure bihotzetan"
MAITE ZAITUGU

- ETXEKOAK -

Urtzi Abantzabalegi Arantzabal

3. URTEURRENA
2023/10/23



"Zure gorputz haundixak tamaiñako bihotza gordetzen eban. Gurian betirako taupadaka dirau"

- MIRENEN KUADRILLA -

db eta kitto!
DEBABARRENA KONTATZEKO GARAIA DA

BADATOZ
URRIKO JAIAK

URRIAREN 23TIK 25ERA OSPATUKO DITUZTE MALLABIKO URRIKO JAIAK. HIRU EGUNEZ, MUSIKA, KIROLA, GASTRONOMIA ETA ADIN GUZTIETARAKO EKINTZAK IZANGO DIRA NAGUSI. GAINERA, ZAPATU GAUEAN GAUTXORI AUTOBUS ZERBITZU BEREZIA ESKAINIKO DUTE. HONA HEMEN EGITARAUA:

URRIAK 23, BARIKUA

16:30_ **Buruhandiak**, eskolatik parkera.
17:00_ Haur eta gazteentzako **herri-kirolak,** parkean.
18:00_**Txupinazoa**, Satxibu Aisialdi Taldearen eskutik, udaletxeko balkoitik.
18:15_ Elizpeko **pilota txapelketa**ren finala, elizpean.
18:30–21:30 _ **V. Kickboxing** eta **Boxeo Gaua**, herriko frontoian. Sarrera: 15 €.
19:00 _ Kolpez Blai **batukada**.
20:30_ **Hanburgesa-pintxoak**, parkean. Prezioa: 1 €.
22:00_ **Kontzertuak**, parkean:
- Oilar Beltzak.
- Mugi Panderoa erromeria.

URRIAK 24, ZAPATUA

09:00_ Bikotekako **frontenis maratoia**, herriko frontoian.
11:30_ Umeen **duatloia**, herriko zirkuituan.
12:00–15:00_ IX. Mallabiko **Ardau Ferixie**, probalekuan. Sarrera: 10 €.
14:30_ **Herri-bazkaria**, eskolako frontoian.
16:30_ **Bertso-saioa,** eskolako frontoian.
17:30_ Kantauri **jolasak umeentzat**, Jokai konpainiaren eskutik, probalekuan.
19:00_ **Kalejira**, Txorongo txarangarekin.
22:00_ **Kontzertuak**, parkean:
- Corazón Oxidado (Fito & Fitipaldisen tributua).
- Nafarroa 1512.
- Naxker.

URRIAK 25, DOMEKA

09:00_ Bakarkako **frontenis maratoia**, eskolako frontoian.
10:00–14:00 _ **V. Autoen Slaloma**, Goitondo Beheko Lau industrialdean.
16:30_ **Magia Zaparrada** ikuskizuna umeentzat, probalekuan.
Ondoren_ **Txokolatada**.
17:00 _ Mus txapelketa, Kontzejuzarrean.



db!

DEBABARRENEAN ZEHAR



Zenbat dakigu benetan Debabarrenari buruz? Hurrengo Debabarrenean Zehar saioan, gure eskualdeko herrietako datu bitxiak, istorio harrigarriak eta askorentzat ezezagunak diren kontuak ezagutuko ditugu. Gainera, kalera irtengo gara herritarren ezagutzak proban jartzera. Zenbat asmatuko dituzte?

ALBISTEAK

Info gehiagorako: **etakitto.eus**

Debak II. Basotik Txirrindulari Festa hartuko du urriaren 24an 600 parte-hartzaileekin.



Gripea eta COVID-19aren aurkako txertoak hartzeko aukera eskualdeko osasun zentroetan.



PLANA db!



Urriak 23

JARDUN.	**ANDALUZIAKO KULTURA ASTEA**	19:00	ANDALUZIAKO KULTUR ETXEA (ERMUA)
MUSIK.	**ROCÍO DÚRCAL ES INOLVIDABLE**	20:30	ANTZOKIA (ERMUA)
GREBA	**GKS. A11KO GREBA-ASANBLADA**	18:30 18:30	LOBIANO (ERMUA) KULTU (EIBAR)
GREBA	**LAB. A11KO GREBARI BURUZ INFORMAZIOA**	18:00	TOLAREKUA (SORALUZE)
ANTZER.	**CANCUN**	20:00	ANTZOKIA (SORALUZE)
ANTZER.	**MADNESS**	19:00	ANTZOKIA (ELGOIBAR)
MAGIA.	**'SEKRETURIK EZ' (KIDAM MAGOA)**	20:00	ISPILUEN GELA (DEBA)
IRAKUR.	**`CARCOMA`BALIRA IRAKURLE TALDEA**	19:00	GAZTETXEA (MUTRIKU)

Urriak 24

ANTZ.	**HODEI GUZTIEN GAINETIK**	17:00	ANTZOKIA (ERMUA)
ASAN.	**ITAIA. MATXISMOAREN AURKAKO ASANBLADA**	16:30	LOBIANO (ERMUA)
EKIT.	**MARCAN HUELLA FEST**	09:00	ARRATE (EIBAR)
ANTZ.	**BIDUTZI**	17:00	COLISEO (EIBAR)
AURKEZ.	**YAKAAR, CARTOGRAFÍA DE LA ESPERANZA**	18:00	PORTALEA (EIBAR)
TOPAK.	**EIBARKO ERNAIREN ELKARGUNEA**	18:30	TRIKU (EIBAR)
MUSIK.	**PUNK KONTZERTUAK**	21:30	GAZTETXEA (SORALUZE)
FESTA	**II. BASOTIK TXIRRINDULARI FESTA**	09:00	ZUMARDIA (DEBA)
GREBA	**GKS. A11KO GREBA-ASANBLADA**	11:30	GAZTETXEA (DEBA)

Urriak 25

JARD.	**PERRETXIKO ERAKUSKETA/DASTAKETA**	10:30	ERREBALEKO PLAZA (EIBAR)
TAILER.	**GABA BALTZA**	11:00	KIROLDEGIA (SORALUZE)
ANTZE.	**AMA BEGIRA ZAZU**	18:30	SAN AGUSTIN (MENDARO)
ANTZE.	**IZENA DUEN GUZTIA**	17:30	ISPILUEN GELA (DEBA)

(min)bizi, sareak ehuntzen

Izan Iñurri elkartearen '(min)bizi' erakusketa urriaren 30era arte egongo da ikusgai Eibarko Andretxean. Minbiziaren inguruko tabuak hautsi eta gaixotasunak eragiten dituen ondorioak ikusaraztea du helburu. Irudien, testuen eta bestelako sormen-lanen bidez, gaixotasuna bizi dutenen gorputzak eta bizipenak azaleratzen ditu. Horrez gain, minbiziaren inguruko aurreiritziei eta gizartearen begiradari buruz hausnartzeko gonbita egiten du. Elkartasuna eta elkar zaintzeko sareak ere aldarrikatzen ditu.

Testua eta argazkiak **IRATI ALVAREZ**

Minbiziak ez du gorputza bakarrik aldatzen. Harremanetan, sexualitatean, lan egoeran eta norberaren gorputzarekiko harremanean ere izan dezake eragina, baita etorkizunari begiratzeko moduan ere. Hala ere, gaixotasunaz hitz egitean, sarritan tratamendua jartzen da erdigunean, eta albo batera geratzen dira eguneroko bizitzan eragiten dituzten ondorioak. Errealitate horiei begiratzeko aukera eskaintzen du Izan Iñurri elkartearen '(min)bizi' erakusketak, Eibarko Andretxean.

«Gaur egun minbiziaren inguruan gertatzen diren gai asko ukitzen ditugu: heriotza bera, bizitza... Azken urteetan ikasi dugunaren laburpena da erakusketa, ibilbidearen ispilu bat», azaldu du Beñat Elizaldek, Izan Iñurriko arte zuzendariak, diseinatzaileak eta web sortzaileak. Bost urte daramatza elkartearekin elkarlanean, eta erakusketak urte horietan eraikita-



ko unibertso bisual eta narratiboa biltzen du.

Izan Iñurri Julene Illarramendik eta Miren Cuerdok sortu zuten, Illarramendiren ama minbiziaren ondorioz hil ondoren. Hasieran, kamisetak egin zituzten, gaixotasuna bizi zuten pertsonei laguntzeko dirua biltzeko. Ekimena handituz joan zen, eta gaur egun, minbizia dutenen eta haien bidelagunen beharrei erantzuteko zerbitzuak eskaintzeaz gain, gaixotasunaren inguruko gizarte ikuspegia eraldatzea du helburu.

«Minbiziak jende askoren errealitatea aldatzen du. Horren inguruan, gaur egun "tribua" deitzen dioguna osatzen joan zen», azaldu du Elizaldek. Elkartearen lanaren oinarrietako bat da gaixotasunaren prozesua bakardadean ez bizitzea. Horretarako, fisioterapia onkologikoa eta zoru pelbikoko fisioterapia, talde terapiak eta aholkularitza legala eta fiskala eskaintzen dituzte, besteak beste. Zerbitzuez harago, antzeko egoerak bizi dituzten pertsonen arteko harremanak sustatzen dituzte.

Gaixotasun bera edo antzeko egoera bizi izan duen norbaitekin hitz egiteak ulertua sentitzeko aukera ematen du. Horregatik, diagnostiko edo bizipen antzekoak dituzten pertsonak harremanetan jartzen saiatzen dira elkartean. Haien artean sortzen den sareari deitzen diote tribua: esperientziak eta zalantzak partekatzeko, elkarri laguntzeko eta, behar denean, kafe bat hartzeko edo kirola egiteko gunea.

«Bat-batean fokua aldatzen zaizu, eta askoz ere kontzienteagoa zara beste gauza batzuez; beste modu batera bizitzen zara», dio Elizaldek, «Hil arte Bizi» leloaren esanahia azaltzean. Gaixotasunak ekar dezakeen zaurgarritasunaren erdian, besteekin sortutako loturek bizitzeko modua ere alda dezakete.



(min)bizi erakusketa Andretxean. IZAN INURRI

Gorputzak eta bizipenak ikusaraztea

Erakusketaren bidez, minbizia bizi dutenen errealitatea gizarte osoari hurbildu nahi diote, gaixotasunaren inguruko ezjakintasuna eta aurreiritziak azaleratzeko. «Nik uste dut jendeak ez dakiela, edo ez dakigula, zer den minbizia», dio Elizaldek. Asmo onez esandako hitzek ere min egin dezakete batzuetan. Burusoil dagoen pertsona bati ilea ondo geratzen zaiola esatea, esaterako, desegokia izan daiteke: ilea ez du nahita galdu, tratamenduaren ondorioz baizik.

Izan ere, minbizia ez da tratamendua amaitzean desagertzen. Ondorio fisikoak, emozionalak eta ekonomikoak luzaroan iraun dezakete, eta eguneroko bizitza berrantolatzera behartu. «Minbizia zaurgarritasunaren anplifikadore bat da: askotan, inguruan dauzkazun arazo guztiak handitu egiten ditu», azaldu du Elizaldek. Eragina izan dezake lanean, harremanetan eta norberaren ongizatean.

Errealitate horiek ikusarazteko, erakusketak ez ezik, hitzaldiak, podcastak eta kultur ekitaldiak ere antolatzen ditu elkarteak. Elizalderen arabera, erakusketak badu berezitasun bat: bisitariak bere erritmoan hurbil daitezke edukira, inorekin hitz egin edo bizipenik partekatu beharrik gabe. «Agian ez zaude zure momenturik onenean, eta ez duzu inorekin konpartitu nahi. Baina erakusketara bakarrik joan zaitezke; bertan dago dena azalduta, distantziatik», azaldu du.



Izan Inurriko kideak erakusketaren aurkezpenean Andretxean.. IZAN INURRI

Minbizia ikuspegi feministatik lantzea ere funtsezkoa da Izan Iñurrirentzat. Elizaldek dioenez, gizartean eta osasun arretan dauden genero desberdintasunek eragina dute gaixotasuna bizitzeko moduan. Emakumeen gorputza eta itxura fisikoa gehiegi jartzen dira erdigunean, eta, sarritan, gaixotasunaren ondorioak estaltzeko joera dago. Horren adibide da ileordeak edo protesiak aukeratzeko informazioa ematea, baina sexualitatea berreskuratzeko edo ebakuntza ondoren gorputza zaintzeko baliabideak bigarren planoan geratzea.

«Normalean, soluzio gisa hartzen da gauzak tapatzea, eta zu izatea gaixotasuna baino lehen zegoen pertsona bera, zure gorputz normatiboarekin, jendeak ulertu dezan ondo zaudela», dio Elizaldek. Haren ustez, ikuspegi horrek ez ditu beti aintzat hartzen pertsona bakoitzaren beharrak eta bizipenak.

Elizaldek kritika egiten die, halaber, urrian bularreko minbiziaren inguruan zabaltzen diren kanpaina komertzialei. Haren ustez, marka batzuek gaixotasuna baliatzen dute produktu arrosak saltzeko, baina ez da beti argi geratzen bildutako dirua zertara bideratzen den.

Erakusketaren muntaketa Eibarren egiten ari zirela, esaterako, herriko futbol taldeak kamiseta arrosarekin jokatu behar zuela ikusi zuten. Realak ere minbiziaren inguruko partida «irabazi beharreko» gisa aurkeztu zuen sare sozialetan. Elizalderen ustez, horrelako mezuak problematikoak izan daitezke, minbizia gainditzea garaipen gisa aurkezten baitute, eta gaixotasuna gainditzen ez duten pertsonak bazterrean uzteko arriskua baitute. «Badira batzuk minbizia gainditzen ez dutenak; orduan, horiek zer dira, galtzaileak?», galdetu du.



Horregatik, minbiziaren inguruko diskurtsoek gaixotasuna bizi dutenen errealitate osoa jaso behar dutela uste du. Izan ere, esperientzia ez da garaipen edo porrot kontu bat: pertsona bakoitzaren bizipenari, zaurgarritasunari eta egoerari lekua egin behar zaie.



Urriaren 30era arte bisitatu daiteke erakusketa Andretxean. IZAN INURRI

Gizarte osoari zuzendutako erakusketa

Diseinua, ilustrazioa, argazkilaritza eta testuak uztartzen ditu (min)bizi erakusketak, minbiziaren inguruko esperientziak eta aldarrikapenak azaleratzeko. «Unibertso bisual eta narratibo bat eraikitzen joan gara», azaldu du Elizaldek. Erakusketak, beraz, gaixotasunari buruzko informazioa emateaz gain, gorputzei, bizipenei eta gizartearen begiradari buruz hausnartzeko aukera eskaintzen du.

Urriaren 14an egin zuten erakusketaren aurkezpena Eibarren, eta Andretxearen arabera, 25 lagun inguru bertaratu ziren. Izan Iñurriko bost emakumek erakusketaren nondik norakoak azaldu zituzten, eta beren bizipenak, hausnarketak eta aldarrikapenak partekatu zituzten, «gertutasunez, eskuzabaltasunez, konfiantzaz eta umorez».

Elizaldek herritarrek erakusketatik ideia bat eramatea nahiko luke: minbiziak ondorio asko dituela, eta horiek ez direla tratamendua amaitzean desagertzen. «Seguru bakoitzak ezagutzen duela minbizia pasatu duen ezagunen bat edo familiakoren bat», azaldu du. «Kontziente izatea nahi dugu, horrek zer albo kalte eta zer ondorio dakartzan, eta ea guztion artean bidea erosoago egiten dugun».

Andretxeak ere oso positiboki baloratu du erakusketa. Berdintasunerako Unitatearen arabera, aurkezpenaz gain, jendea erakusketa ikustera hurbiltzen ari da. Bereziki nabarmendu ditu Izan Iñurrik sustatzen dituen laguntza sareak eta antolakuntza kolektiboa.

«Topaketak elkarri entzutearen, elkar ulertzearen eta elkarri eustearen garrantzia gogorarazi zigun», adierazi du Andretxeak. Erakundearen ustez, tribua eraikitzea funtsezkoa da gaixotasunaren prozesua bakardadean ez bizitzeko; halaber, elkartearen jardunak emakumeen autonomia eta ahalduntze feminista sustatzen ditu. Erakusketak, gainera, genero desberdintasunek gaixotasunaren esperientzian, osasun arretan eta zaintzan duten eraginaz hausnartzeko aukera ematen du.

Erakusketa urriaren 30era arte egongo da ikusgai Eibarko Andretxean, minbiziaren inguruan gutxi aipatzen diren bizipenak eta ondorioak ezagutarazteko.

ek!
Zure publizitatea herriko aldizkarian
688 621 535
publizitatea@etakitto.eus

Dendari bila gabiltza!
Eibarko erdigunean irekiko den moda-denda berri baterako. Kontratu egonkorra eta lan-giro ona eskaintzen ditugu.
Esaiguzu zergatik zaren zu lanpostu honetarako hautagai aproposa! dependienta_eibar@yahoo.com

MARKEL MARTIN • Emeka

“Rap-etik aparte, leiho gehiago zabaldu ditut”

Amañako Gazte Egunaren bigarren edizioa ospatuko da bihar eta, horretarako, egun osoko egitaraua prestatu dute auzoko gazteek: 12:00etan trikipoteoa, 16:00etan mus txapelketa, 18:00etan txokolatada, 18:30ean ‘Josetxo ta Alayak’ elektrotxaranga, eta 21:30etatik aurrera ‘Emeka’, ‘Mutiko eta Marmitako Trap Banda’ eta ‘Muxutruk Erromeriaren’ kontzertuak.

Testua eta argazkiak
EKHI BELAR ERRASTI
Bideoa
YANIRE SAGREDO HERNAEZ

Etxean joko du Markel Martin ‘Emeka’-k, Amañakoa baita. Gaztea izanda ere, urte asko daramatza rap-a egiten eta bere sorkuntzak ez du mugarik. Era berean, urteekin izan duen eboluzioak beste estilo batzuk jorratzera eraman du.

‘Kosas klaras’, ‘Mustang’, ‘Dime algo’, ‘Dardarak’... hainbat abesti kaleratu dituzu azken urtean. Sorkuntza momentu oparoa bizi duzu?

Ikuspuntu helduagoa eman nahi dut orain eta horretan nago buru-belarri. Ez dut eman nahi hain ‘txuleta’ itxura. ‘Txuleta’ izaten jarraitzen dut, baina gauzak ondo egin behar direla adierazi nahi dut eta horretan nabil lanean.

Nondik etortzen zaizu inspirazioa?

Momentuaren arabera. Arlo horretan ere lana egiten ari naiz eta konstantea izaten saiatzen ari naiz. Soraluzera astean behin joaten naiz grabatzera, bai edo bai, eta bertan zerbait egiten saiatzen gara, izan ahotsak nahastu edo bi gauzatxo grabatu.

Amañan joko duzu bihar. Auzoak markatu egiten du abestiak sortzeko orduan?

Amañak badauka zerbait. Gure kalean hiru lagunek rapeatzen dugu. Xune (Renk CA) ez da hor bizi orain, baina Esco, Xune eta hiruon portalak bata bestearen alboan egon dira.

Bihar auzoan arituko zara. Nola sentitzen zara horren aurrean?

Pixka bat urduri etxean delako, gurasoak ikusten egongo direlako, baita euren lagunak ere... Baina beno, gogoz.

Inoiz zuzenean ikusi ez zaituenarentzat: nolakoak izaten dira zure ikuskizunak?

Intentsitate asko transmititu nahi izaten dut zuzenekoetan, energia asko. Asko mugitzen naiz. Geldi egoten bazara, publikoa ere geldi geratuko da eta, nik jendea saltoka egotea eta letrak dakizkienak abestu ditzala nahi izaten dut. Jendea topera egotea saiatzen naiz.

Amañan ez da Eibarko jendea bakarrik egongo, baina Eibarren nolako rap publikoa dago?

Orain dela bost urte inguru mugimendu gehiago zegoela uste dut. Orain beste genero batzuk zabaldu dira gehiago gazteen inguruan. Agian, lehen rap-a modan zegoen eta orain atzera egin du, baina uste dut Eibarko jendeari rap-a gustatzen zaiola, gure adinekoak, gazteagoak ala zaharragoak izan. Kultura ona dago Eibarren.

Lehen North School komunitatea zenuten, bazegoen mugimendua. Nola jarraitzen du horrek?

Bai, badugu komunitatea hor. Orain, Amañan estudiorik ez daukagunez, North School-eko kide bakoitzak bere aldetik jarraitu du, baina noizean behin elkartzen gara, afariak egiten ditugu edo dena delakoa, harremanetan jarraitzen dugu.

Soraluzen grabatzen duzula esan duzu.

Bideoa ikusi eta entzun nahi?



Emeka-ren "barrak" entzuteko gogoz daude Eibar eta inguruetako zaleak. EKHI BELAR ERRASTI

“Ez dut eman nahi hain ‘txuleta’ itxura. ‘Txuleta’ izaten jarraitzen dut, baina gauzak ondo egin behar direla adierazi nahi dut”

Zergatik?
Ina Peñalbarekin grabatzen dut Soraluzen. Lehen gitarra-jolea zen eta orain ‘baseak’ (rap-ean abesteko edo errimak egiteko erabiltzen den soinu-oinarri edo instrumentala) egiten hasi da, eta oso gustora nago berarekin. Bestela, Densorekin aritzen naiz Arrasaten. Gaur egun estudio asko dago, baina Eibarren ez. Legarren badago, baina sartzen saiatu ginen eta oso konstantea izan behar zara, plaza mugatuak daudelako, eta astero joan behar zara eta abar. Horregatik bilatu genuen beste toki bat.

Rap-ean letrek berebiziko garrantzia dute eta horretan trebatzen zara, baina nola moldatzen zara erritmoa eta musika jartzeko?
Aspalditik ari gara hain rap ez diren kantuak egiten. Beste estilo batzuk aurkitzen saiatzen ari gara. Horretarako, autotuneak asko laguntzen dit, baina beti izan dut melodiak sortzeko ohitura. Beti noa txistu egiten, melodiak pentsatzen, eta estudioan forma ematen diot horri.

Nola esango zenuke eboluzionatu duzula hasi zinenetik gaur egunera arte?
Askoz ere osoagoa naizela esango nuke. Askoz ere genero gehiago egin ditut. Nire nota 6 da arlo guztietan: rap-ean ondo aritzen naiz, beti egin izan dudalako, baina beste edozein gauza egitera moldatu naiteke. Hori, hasi nintzenean, ezta pentsatu ere. Rap-a bakarrik egiten nuen, baina orain leiho gehiago zabaldu ditut.

North School-ek edo beste rap sortzaile batzuekin izan dezakezun harremanak horretan laguntzen du?
Hori da! Jendea ezagutzeko eta garrak piztuta jarraitzeko balio du horrek. Agian beste batzuei ez, baina neri gertatzen zaidana da aspertu egiten naizela beti berdina egiten badut. Zerbait berria aurkitzen duzunean motibatu egiten zara.

“Aspalditik ari gara hain rap ez diren kantuak egiten. Beste estilo batzuk aurkitzen saiatzen ari gara”

“Patera batean hondoratzen den lagun bakoitzarekin familia osoa hondoratzen da”

CHEIKH MBACKE LO • **Idazlea** >>>

Orain dela ia 20 urte, bizitza hobea aurkitzeko itxaropenarekin, Senegal utzi eta Europarako bidea hartu zuen Cheikh Mbacke Lok. Bizitza arriskuan ipini zuen bidaia horretan, baina berarekin joan ziren gehienek ez bezala, Algecirasera (Espainia) osorik iristea lortu zuen. Orain, bere historia, ahotsa ez duten beste askoren antzekoa, paperera eraman du ‘Yakaar, cartografía de la esperanza’ liburuan.

Testua **EKHI BELAR ERRASTI**

Senegalen, unibertsitatean, literatura ikasketak egin zituen Cheikh Mbacke Lok eta literaturaren bitartez beste herrialde bateko bizimodura egokitzearen, norbere identitatean eragiten dituen aldaketen eta migrazioaren inguruko gaien inguruan hausnartzen du. Bihar, 18:00etan, liburuaz eta bertan jorratzen duenaz hitz egingo digu Portaleko areto nagusian.

‘Yakaar, cartografía de la esperanza’ da liburuaren izenburua. Zein esanahi du yakaar berbak eta zergatik erabaki zenuen izenburu hori jartzea?

Itxaropena esan nahi du woloferaz. Hainbat izenburu nituen buruan, baina umetatik izan dut yakaar, hau da, itxaropena. Itxaropenak bultzatu ninduen itsasora botatzera. Horregatik, izenburuak pentsatzen ari nintzenean, yakaar etorri zitzaidan burura eta bikain egokitzen zela ikusi nuen.

Liburua autobiografikoa da. Zein momentutan sentitu zenuen zure historia kontatzeko beharra?


Liburuan nire bizipenak kontatzen ditut, baina jende askoren istorioak ere badira. Ahotsa ez duten askori ahotsa ematen saiatu naiz. Une batean gauzek pisu handia zuten niretzat. Izan ere, Marokon 31 lagun igo ginen paterara, baina horietako 29 itsasoan hil ziren. Beti izan dut hori gogoan eta zama handia zen niretzat. Beraz, zerbait egin behar nuela pentsatu nuen. Bestalde, gizartean dagoen arrazismoa eta injustizia ikusita, nire alea jarri nahi nuen eta horrek bultzatu ninduen idaztera.

Nolakoa izan zen Europara etortzeko erabakia hartzeko prozesua? Zer espero zenuen aurkitzea bidaia hari ekitean?

Sasoi horretan unibertsitatean ikasten nengoen eta itxaropenarekin bizi nintzen, baina ez nuen etorkizunik ikusten. Nire familia pobrea zen. Amak kilometroak egin behar zituen ur katilu bat ekartzeko. Aitak lurra lantzen zuen, baina bere lanak ez zuen fruiturik ematen. Ez zuen euririk egiten eta, erein arren, ez genuen ezer jasotzen. Horrez gain, Europa paradisua zela esaten ziguten. Pelikula hori saldu ziguten. Beraz, horrek guztiak bultzatu ninduen Europara etortzeko erabakia hartzera.

Liburuan migrazioaren alderdi gogorrenak jorratzen dituzu. Zer kontatu nahi izan duzu hedabideetan edo gizartean agian behar beste entzuten ez den ibilbide horri buruz?

Bidea Senegalen hasi nuen eta Gambian eta Marokon




Cheikh Mbacke Lo Portaleko areto nagusian izango da bihar, 18:00etan. NOTICIAS DE NAVARRA

bisitakoa kontatzen dut liburuan, besteak beste. Baita Tanger eta Algeciras arteko bidea ere. Bide luzea izan zen eta gauza asko gertatu zitzaizkidan. Bidean hil zirenak nire lagunak ziren eta nire bizitzaren parte izan dira. Helburu amankomuna genuen: Europara heltzea. Horren aurretik, ostera, bakoitzak bere bizitza izan zuen eta hori liburuan islatu nahi izan dut.

Historia hau kontatzeko beharra zenuela aipatu duzu. Nolakoa izan zen hori idazteko prozesua?

Urtebete iraun nuen liburua idazten. Historia hori idaztea ez zen batere erraza izan, oso puntu sentikorrak ukitzen dituelako. Oso tristea eta gogorra egin





zitzaidan idaztea, bizitakoa gogorarazten zidalako. Era berean, idaztea terapia modukoa izan zen niretzat eta barrenean neramana arintzen lagundu zidan.

Hori guztia gertatu zenetik 20 urte pasa eta gero, atzera begiratuz gero, zer pentsatzen duzu?

Ez dugula aurrera egin. Gauzek berdin jarraitzen dute. Gaur egun ere, jende askok nik egin nuen bide bera egiten jarraitzen du. Mundu guztiak daki hori gertatzen dela, baina horrek berdin jarraitzen du. Hedabideek batzuetan zerbait aipatzen dute, baina kitto. Urte batzuetara berriz aipatuko dute zerbait, eta beti horrela. Politika egiteko erabiltzen gaituztela pentsatzen dut.

Bai, baina horren guztiaren atzean pertsonak daude.

Hori da, ez gara zifra hutsak, gizakiak baizik. Askotan aipatzen dute itsasontzi bat hondoratu dela eta ez dakit zenbat lagun hil direla, edo hainbat lagun hil direla ez dakit non. Zifra hutsak. Horregatik idatzi dut liburua, Europarako bidean hil diren guztiei memoria emateko eta pertsona gisa gogoratuak izateko, ez zifra huts bezala. Abizenak, gurasoak eta familia duten pertsonak dira. Patera batean hondoratzen den lagun bakoitzarekin familia osoa hondoratzen da. Gizakiak direla konturatu behar dira gizartea zein agintariak, eta hori ekiditen saiatu behar dira. Konponbideak aurkitu behar dituzte. Hona datorren jendea behar bat duelako etortzen da. Beraz, zerbait egin behar da euren jaioterrian gelditzeko gogoa izan dezaten. Denok irabaziko genuke horrela.

Europa paradisua zela esaten zizuetela aipatu duzu. Paradisu hori aurkitu duzu hemen?

Jende zoragarria aurkitu dut Euskal Herrian, oso jende ona. Asko lagundu didan jendea aurkitu dut, oso jatorra, baina badago aurka egin eta ongi etorririk eman ez digun jendea ere. Uste dut ez dela jende txarra, ezagutzen ez dutenari beldurra diotela baizik. Baina paradisua... Bakoitzaren begiradaren araberakoa da hori. Nire paradisua familiaren alboan aurkitzen dut. Ostera, gaur egun, pasa den denbora guztiaren ondoren, nire buruari nongoa naizen galdetzen diot. Senegalekoa naiz, eta harro gainera, baina era berean hemen sustraitu naiz eta lagunak egin ditut hemen. Nire iritziz, tokia ematen badiote, pertsona bakoitzak edonon egin dezake bere bizitza eta bertakoa sentitu daiteke. Horregatik egin behar dugu lan elkarbizitzaren alde. Etortzen direnak integratu egin behar dira, beste etxe batera joaten bazara, etxe horretako gauzak errespetatu behar dituzulako; baina etxe horretako jendeak ere tokia egin beharko lioke, ongietorri dela sentiarazi.

Migrazioaren inguruko eztabaidak zifretan, politiketan eta mugetan zentratu ohi dira. Zer ekarpen egin dezake literaturak datu horien atzean dauden istorio pertsonalak jendartera hurbiltzeko?

Pertsona batekin aurrez aurre berba egiten baduzu, esandakoa motz gelditu daiteke, baina 350 orriko liburu batean gehiago sakondu dezakezu. Liburua irakurri duten batzuk besarkada bat ematera etorri zaizkit, batzuk negarrez. “Eskerrik asko hau idaztegatik, ez genekien ezer horri buruz”, esan didate ere. Literaturak beste toki batzuetara bidaiatzeko aukera ematen du, toki horiek eta xehetasun gehiago ezagutuz. Literatura da gauzak aldatzeko tresnarik garrantzitsuena.

Aitziber Badiolak “armairu kapsulen” inguruko saioa eskaini du

“Armairu kapsulak” izenekoak hizpide izan zituen martitzenean ...eta kitto!-n Aitziber Badiola irudi-aholkulariak, arreta arduraz erostean eta arropa gutxiagorekin asko konbinatzean jarriz. Kontsumo konpultsiboa saihesteko hainbat ideia eman zituen eta norberaren estilora egokitutako oinarrizko jantziak hautatzeko hainbat aholku ere bai. Iaz birritan izan zen Aitziber gurean, itxura pertsonalaren inguruan jarduteko.





Familia berbalagunak Arrikrutzen izan dira

Joan den zapatuan, ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatzen dituen Gurasoak Berbetan eta Ongietorri programetako hainbat familia Oñatiko Arrikrutzeko kobazuloak bisitatzen egon ziren. Oñatiko Araotz auzoan daude kobak, Aizkorri mendilerroaren bihotzean. Gipuzkoako lurpeko sistemarik luzeena eta zabalena dira eta 15 kilometroko galeriaz osatuak daude. Geologo edo paleontologo izan gabe ere, goizpasa ederra egin zuten gidariaren azalpenak entzun eta inguruan zuten edertasunaz gozatzen.



Barixakuak Jolasian Txaltxa Zelaira itzuliko da gaur

Aurreko barixakuan Urkizuko parkean egon ostean, Txaltxa Zelaira itzuliko dira gaur Barixakuak Jolasianeko jolasak. 17:00etan hasita euskarazko jolasak eskainiko die etxeko txikienei ...eta kitto!-k, doan. Hurrengo astean, urriak 30, Torrekuara bueltatuko dira jolasak.

MADDI BERRIO eta JULEN BAROJA • Eibarko Ernai

“Gazteok antolatu gaitezke, eta denon artean eragin politiko handia izan”

Irailaren 23an, «Urrats bat aurrera» proposamena aurkeztu zuen Ernaik, Euskal Herriko gazteen bizi-baldintzak hobetzeko bederatzi aldarrikapenekin. Gazteen kezkak partekatzeko elkarguneak ere antolatu nahi dituzte; lehenengoa zapatu honetan egingo dute, Triku tabernan, 18:30ean.

Testua eta argazkiak IRATI ALVAREZ

Etxebizitza, enplegua, euskara eta garraioa dira gazteen kezka nagusietako batzuk. Horien inguruan, Ernaik «Urrats bat aurrera» proposamena aurkeztu du. Maddi Berrio eta Julen Baroja Eibarko Ernaiko kideek ekimenaren helburuak azaldu dituzte, eta gazteen kezkak partekatzeko eta elkarrekin eragiteko espazioak sortzearen garrantzia azpimarratu dute.

Zergatik sortu duzue «Urrats bat aurrera» proposamena?

JULEN: Iazko Ernairen kongresuan egungo egoera soziopolitikoari buruzko ondorioak atera genituen. Faxismoaren gorakada, gerren areagotzea eta armagintzan egiten den inbertsioa dira egoeraren adibide. Gazteok gizarteko sektore prekarizatuenetako bat gara, eta horri erantzuteko bederatzi aldarrikapen bildu ditugu, Euskal Herriko gazte guztiek duintasunez bizitzeko aukera izan dezagun.

MADDI: Egoera horrek gizarte osoari eragiten dio, baina gazteongan modu berezituan. Gure nahiak, beharrak eta kezkak kontuan hartuta, egungo egoerari buelta eman nahi diogu. Proposamena ez dago itxita, eta aldarrikapenak modu zabalean ulertzen ditugu.

Zeintzuk dira bederatzi aldarrikapenak?

JULEN: Etxebizitza duina eta eskuragarria; euskaraz bizitzeko eskubidea; kalitatezko garraio publiko bateratua; eskubide zibil eta politiko guztiak; enplegu duina; hezkuntza-sistema propioa eta doakoa; zaintza-sistema publiko eta komunitarioa; larrialdi klimatikoari irtenbidea ematea; eta Euskal Herriarentzat burujabetza osoa lortzea. Azken aldarrikapen horrek aurreko guztiak zeharkatzen ditu.

Zein aldarrikapen nabarmenduko zenukete?

JULEN: Etxebizitzarena, zalantzarik gabe. Etxebizitza eskubidea da, eta ezin da espekulaziorako edo negoziorako tresna izan. Etxebizitza-krisiari aurre egiteko, etxebizitza negoziotik atera eta eskubidea bermatu behar da. Gazteon bizi-baldintzak hain dira prekarioak, ezen etxebizitza bat eskuratzea oso urrun ikusten baitugu. Gainera, gure beharretatik abiatutako etxebizitza-politikak garatzeko burujabetza handiagoa behar dugula uste dugu.

MADDI: Etxebizitzarekin lotuta, azaroaren 11ko grebarekin bat egiteko deia egin nahi dugu. Larrialdi-egoeran gaude, eta gaia pil-pilean dagoenez, aukera baliatu behar dugu grebari oihartzuna emateko.

Euskaraz bizitzeko eskubidea da nabarmendu nahi dugun beste puntuetako bat. Eibarren, gero eta gazte gutxiagok egiten dute euskaraz bizitzeko hautua kontzienteki. Kezkatzen gaituen gaia da, Euskal Herri osoan ere gero eta toki gutxiagotan bizi baitaiteke euskaraz.

JULEN: Beste puntuetako bat garraio publiko bateratuarena da. Aldarrikapen berria da Ernairentzat. Euskal Herrian 16 garraio-sistema daude, eta ez dago



Eibarko Ernaik elkargunea antolatu du zapatu honetan Trikun. IRATI ALVAREZ

herri osoaren beharrak kontuan hartzen dituen sistema bateraturik. Gazte asko gara ikastera edo lanera joateko garraio publikoa erabiltzen dugunak. Kalitatezko zerbitzua nahi dugu, ordaintzeko modukoa eta Euskal Herri osoa aintzat hartuko duena; ez dadila errazagoa izan Espainiako zenbait tokitara joatea Euskal Herriko hainbatera baino.

Eibarrera begira, nolakoa da gazteen egoera?

MADDI: Nire ustez, gazte gehienak ez daude politizatuta, edo ez behintzat arlo guztietan. Euskararen adibidea jarriko nuke: askok ez dute ikusten euskaraz bizitzea hautu politikoa denik. Horregatik, gai hauek mahai gainean jarri nahi ditugu, hausnarketa eragin eta egoerari buelta emateko.

JULEN: Gazteriaren zati handi bat ez dago politizatuta, eta politizatuta daudenen artean ere zaila da kohesioa sortzea. Espazio berriak sortu nahi ditugu, gazteek beren kezkak eta beharrak partekatu, ekimenetan parte hartu eta eragin politikoa izan dezaten.

Zer egingo duzue zapatu honetako elkargunean?

MADDI: Triku tabernako terrazan elkartuko gara. Ernairen bederatzi aldarrikapenak aurkeztuko ditugu, eta ondoren Arrate Delgadoren saio akustikoa izango dugu. Jendea gonbidatu nahi dugu gure proposamena ezagutzera, kezkak partekatzera eta hausnartzera. Eibarren modu antolatuan egingo dugun lehen elkargunea izango da. Aurrera begira, parte-hartzaileagoak diren beste espazio batzuk sortu nahi ditugu. Ez dugu nahi guk zerbait aurkeztu eta hor amaitzea; denon artean eraikitzea da asmoa.

“Espazio berriak sortu nahi ditugu, gazteek beren kezkak eta beharrak partekatu, ekimenetan parte hartu eta eragin politikoa izan dezaten”

JULEN BAROJA (EIBARKO ERNAI)

Zer esango zeniekete herriko gazteei?

JULEN: Etxebizitzaren aldarrikapena azpimarratu nahi dugu, eta herritarrei azaroaren 11ko grebarekin bat egiteko gonbidapena luzatu.

MADDI: Gazteei beren egoerari erreparatzeko eta bederatzi aldarrikapenek beren bizitzetan nola eragiten duten hausnartzeko esango nieke. Garrantzitsua da kezkak azaleratzea.

JULEN: Gazte asko gara, antolatu gaitezke, eta denon artean gauza handiak lor ditzakegu. Eragin politiko handia izan dezakegu.



OSKAR ARANTZABAL

Zero demokrazian

Sarri baino sarriagotan entzun (eta esan) dugu sistema politikoen artean demokrazia dela gutxieneko txarrena (edo, nahiago baduzue, txarrenen artean onena). Zalaparta ugari piztu zuten aurtengo selektibitatean euskaran jarritako zeroek (ez horrenbeste fisikan) edota hautsak harrotu dituzte PISA txostenaren emaitza kaskarrek gure hezkuntza sisteman, gutxi irakurtzen den seinale. Eta, bidenabar, zer nota jarriko genieke politikariei eta beraien alderdiei?

Irakurtzeko moduko liburu lagungarri batzuk aipatze aldera: Eric Fromm (*Askatasunaren beldur, 1941*) eta bere galdera zuzena: Zergatik zaio beldurra demokraziari? Suitzan hainbat erreferendum parte-hartzaile (eta lotesle) abiatzen dituzte sarritan; hemen noiz galdetu da adibidez monarkia ala errepublika? Berriki Gipuzkoako Batzar Nagusietan erabakitzeko eskubidearen aldeko mozioa aurkeztu zen eta PSEk aurka bozkatu zuen. Eibarko sozialistek irakurri al dituzte konfederalismoaren alde Toribio Etxebarriak *(La Liga de Naciones y el problema vasco, 1918*) edota Juan San Martinek (Giza eskubideen inguruan, 2000) idatzitakoak? Etxebizitza duinerako eskubidea bai, baina euskal etxea eraikitzekoa ere bai.

Bada beste bat aski esanguratsua: David van Reybrouck (*Against elections: the case for democracy, 2013*). Laburbilduz hauteskundeen aurka agertzen zaigu holandarra, egiturazko gatazkak ez direlako alderdi politikoen eskutik konpontzen (demokrazia indirekto edo ez-zuzena -euskaraz bigarren esanahi maltzur batekin gainera: bidegabea-) eta ustelkeria zabalak hiritarren konfiantza gutxitzen duelako. Gogora ekar dezagun Hitler edota Trump batek hauteskundeak irabazi zituztela eta begira zer nolako ondorioekin.

Hori gutxi ez eta erroldak manipulatzen saiatzen dira (posta bidezkoak, erbesteratuenak, etab.), hautesbarrutiak aldatzen (ingelesez horretarako hitza ere asmatuta dago “gerrymandering”, AEBetan legeztatua dagoena) edota dirua eskaintzen norberari bozkatzeagatik (bost mila dolar!). Gogora datorkit Jose Saramagok, 1998an Literatura Nobel saridun portugaldar eta komunista amorratuak Donostiako Antzoki Zaharrean eman zigun hitzaldia: *Demokraziaren ilusioa*, berez enpresa multinazionalak (edo gaurko teknoligarkak) aurkeztu beharko liratekeela hauteskundeetara.

"Hautsak harrotu dituzte PISA txostenaren emaitza kaskarrek gure hezkuntza sisteman, gutxi irakurtzen den seinale. Eta, bidenabar, zer nota jarriko genieke politikariei eta beraien alderdiei?"

Eta inor kanpoan ez uzteagatik, burujabetzaren aldeko alderdi abertzaleek ez dute Gasteizko Legebiltzarrean ezta eztabaidatu ere egin hemen erabakitzea gutxieneko soldata eta pentsioa, milaka sinadura aurkeztu ondoren, argudiatuz eskumen horiek transferitu gabe daudela zentralismotik. Eta orduan nola sinestuko diegu balizko Estatus berriarena, Gernikako aurrekoa bete gabe dagoenean berrogeita zazpi urte pasa eta gero?

Eta zerrenda nahi beste luza daiteke: NATO, dokumentu sekretuen desklasifikazioak, hizkuntz eskakizunak... Demokrazia zuzenaren diseinatzaile greziar klasikoek (“polis”=estatu-hiria, eta hortik politika) garbi utzi zuten demokrazia herriaren boterea zela. Definitu behar duguna da nor den herria (“demos”=subjektu politikoa) eta nork duen boterea (“kratos”=objektu politikoen gainean). Demokrazian bizi garela sinestarazi nahi digute baina errealitatea oso bestelakoa da, demokrazia egin egiten delako.



Ipuruako gimnastek hainbat domina eskuratu dituzte Euskadiko Txapelketan

E.B. Euskadiko Txapelketa jokatu zen joan den zapatuan, urriak 17, Leioan, eta Ipurua gimnasia erritmikoko klubeko ordezkariek maila zoragarria erakutsi zuten, taldeka zein bakarka hainbat domina irabazi zituzten-eta.

Taldekako lehiaketan, oinarrizko infantilek eta jubenilek bigarren postuan amaitu zuten, eta junior absolutuko taldek urrezko domina eskuratu zuen. Bakarkakoan, bestalde, Uxue Garcia 3. geratu zen eta Espainiako Txapelketarako sailkatu zen.

Orain, etxean aritzea tokatu zaie Ipuruakoei, bihar, urriak 24, San Andres torneoa jokatuko baitute Ipurua kiroldegian. Saioak goizez eta arratsaldez egingo dira, eta sarrera doakoa izango da. Beraz, Ipurua klubetik herritarrak gonbidatu nahi dituzte gimnasia erritmikoaz gozatzeko.

Pilota partidak, gaur, Astelena pilotalekuan

E.B. 18:00etatik aurrera, eskuz banakako Gipuzkoako Txapelketan, alebin mailan, Eibar Kirol Elkarteko Andonegik Zestoako Abantzu klubeko Salaberriaren aurka neurtuko ditu indarrak, eta Motriko eibartarrak Bergarako Larrañagaren aurka jokatuko du. Infantiletan, Arrietak Azkoitiko Oteiza klubeko Aramendiren aurka jokatuko du, eta Segurolak Azkoitiko Leteren aurka.

Ondoren, kadete mailako partida jokatuko da: Eibarko Agote eta Saez Lasarteko Intza klubeko bikotearen aurka. Jardunaldia amaitzeko, senior mailan, Ibarra eta Aguirresarobe Oñatiko Aloña Mendi klubeko bikotearen aurka arituko dira.

Etxetik kanpo, gaur, Atxa infantilak Aretxabaletan jokatuko du Akizuren aurka, eta Arriolak Arrasaten, Pujanaren aurka.

Bihar, Ferreiro eta Urainek Andoaingo Arrate pilotalekuan jokatuko dute, 12:15ean; eta Amillategi eta Gil bikoteak Tolosako Beotibarren, 13:30ean. Kerejetak Zumaian jokatuko du bihar, 19:00etan.

Jon Ibarluzea da Euskal Herriko Hiru Txirlo Txapelketako lehen liderra

E.B. Joan den zapatuan eman zitzaion hasiera Euskal Herriko 36. Hiru Txirlo Txapelketari Aramaioko Untzilla bolatokian. Guztira 88 bolarik hartu zuten parte bertan eta San Migel taldeko Jon Ibarluzea izan zen garaile, bost txirlorekin.

Bere atzetik sailkatu ziren Elgeta taldeko Lili Quiala zaldibartarra beste bost txirlorekin eta Markel Beitia untzillatarra lau txirlorekin. Bergara taldeko Anartz Esteban eibartarra, berriz, bosgarrren izan zen.

Txapelketaren hurrengo jardunaldia Etxagueneko Urrengi bolatokian jokatuko da bihar, urriak 24, 17:00etan. Ondoren, hilaren 31n, Iruzubietan (Ziortza-Bolibar) lehiatuko dira; azaroaren 7an, San Joxepen (Bergara); 14an, Barinagan (Markina); eta finala Elgoibarko San Migelen, azaroaren 21ean. Jardunaldi guztiak 17:00etan jokatuko dira eta finala 12:00etan.



Asier Cuevas Herri Lasterketa azaroaren 14an

E.B. Deportiboak antolatutako probak 7,5 kilometroko ibilbidea izango du, aurreko urteetako zirkuitu bera, eta irteera 18:00etan emango dute, Toribio Etxebarria kalean, Deportiboaren aurrean. Bestalde, 17:00etan, Eskola Kiroleko haurrentzako Asier Cuevas txikia egingo dute.

Parte hartzeko, gutxienez 16 urte izan behar dira, eta aurrez izena ematea derrigorrezkoa izango da. Horretarako azken eguna azaroaren 13a izango da, 23:00ak baino lehen. Lasterketa egunean ezingo da izena eman. Prezioa 15 eurokoa da, eta parte-hartzaile kopurua 250 korrikalarira mugatuko dute.

Izena emateko bi aukera daude: Sailkapenak.com webgunean edo Klub Deportiboko bulegoetan, Toribio Etxebarria kaleko 16. zenbakian, lehen solairuan, ostiraletan 19:00etatik 20:00etara.

Dortsalak azaroaren 14an bertan jaso ahal izango dira, Klub Deportiboan: goizean, 12:00etatik 14:00etara, eta arratsaldean, 15:00etatik 16:45era. Eta lasterketa amaitzean, dutxak Eibarko kiroldegian egongo dira erabilgarri.

Bestalde, antolatzaileek boluntarioen laguntza ere eskatu dute. Lasterketan laguntzeko prest daudenek atletismoa@deporeibar.com helbidera idatzi dezakete.





Txanponaren bi aldeak Eibar Rugby Taldearen seniorrentzat

E.B. Joan den asteburuan Eibar Rugby Taldearen seniorretako talde biek jokatu zuten, emaitza ezberdinekin.

Emakumezkoen Ohorezko B Mailan jokatzen duen taldeak Complutense Cisnerosen aurka jokatu zuen Madrilen eta 17-12 galdu zuen.

Galdu arren, Eibar 2. postuan dago, sei punturekin. Hurrengo jardunaldian, Santboianari egingo dio bisita, azaroaren 1ean, 12:00etan.

Gizonezkoen Euskal Ligan jokatzen duen Eibar Rugb Taldeak 27-38 irabazi zion domekan San Sebastiani.

Gorabehera asko egon ziren markagailuan, baina azken txanpan eibartarrak gailendu ziren.

Neurketa zirraragarri horren ondoren, hurrengo jardunaldian ere etxetik kanpo jokatuko du Eibarrek, domekan, 12:00etan, Zarautz-Beltzak taldearen kontra.

Eibar Sports Tech Day jardunaldia egingo dute urriaren 30ean, Teknikerren

E.B. Topaketa "Industria, kirola, berrikuntza: aukerak konektatzen" lelopean egingo da, kirol-industriako eragileen arteko lankidetza sustatzeko eta sektorean ekintzailetza teknologikoa zein berrikuntza bultzatzeko. Bertan, administrazio publikoetako, enpresa industrial eta teknologikoetako, kirol-erakundeetako, start up-etako eta sektoreko profesionaletako ordezkariak bilduko dira. Helburua Sports Tech industriak eskaintzen dituen aukerak ezagutaraztea da, hau da, teknologia eta berrikuntza kirolaren esparruan aplikatzeak garapen ekonomikorako, enpresak erakartzeko eta negozio berriak sortzeko dituen aukerak aztertzea.

Kirolari aplikatutako teknologiak, ekintzailetzak eta berrikuntzak eskaintzen dituzten aukerak baliatu nahi dituzte, industria-sarearen, kirol-sektorearen eta ekosistema ekintzailearen arteko harremanak sendotzeko.



Bigarren garaipena jarraian Artesanos Juantxo saskibaloi taldearentzat

E.B. Eibar Saskibaloiko senior gizonek Atletico San Sebastian azken sailkatua izan zuten arerio eta 51-64 gailendu zitzaien.

Garaipen horrekin eibartarrak 4. postuan daude orain, 5 punturekin, eta hurrengo jardunaldian Donosti Dolphins hartuko dute Ipuruan.

Klubeko beste ordezkariek emaitza hauek izan zituzten: Emakumezkoen 2. Mailan, Bera Bera 54-35 Eibar S.; Gizonezkoen 3. Mailan, Arri BKL 87-50 Eibar S. U22; Gizonezkoen Juniorretan, Arri BKL 55-44 Eibar S.; Emakumezkoen Juniorretan, Eibar S. 38-57 Añorga; 2011ko Gizonezkoen Kadeteetan, Eibar S. 68-56 Bergara; 2012ko Gizonezkoen Kadeteetan, Goierri 73-42 Eibar S; Emakumezkoen Kadeteetan, Eskoriatza 64-26 Eibar S.; Gizonezkoen Infantil Haundietan, Easo 48-45 Eibar S; Emakumezkoen Infantil Txikian, Arri BKL 35-13 Eibar S.

Urbat IKE-ren seniorrek garaipen garrantzitsuak lortu zituzten asteburuan

E.B. Jardunaldiko emaitzarik nabarmenena Urbat IKE-ren Senior A taldeak lortutakoa izan zen. Eibartarrek 10-12 irabazi zuten Ciudad Alcorconen etxean, markagailuari buelta eman ondoren.

Urbat-en Senior B taldeak ere hiru puntu eskuratu zituen, Urgara Txingudi 10-14 garaituta. Emaitza horri esker, taldeak sailkapenean egoera ona sendotu du eta konfiantzaz jarraitu ahal izango du denboraldia.

Jubenil Mailako taldeak, bestalde, jardunaldiko garaipen argienetako bat lortu zuen: 4-25 irabazi zion CD Bilbaori, neurketan nagusitasuna erakutsita.

Infantil Misto taldeak 7-11 galdu zuen CD Larrainaren aurka. Aurkariak bere aukerak aprobetxatzen jakin zuen neurketa zailean. Senior Emakumezkoen Hiru Urak taldeak ere ezin izan zuen garaipena lortu, Larrainaren aurka 5-19 galdu baitzuen.

Domekan hasiko dira haurren mendi-irteerak

E.B. Eibarko Klub Deportiboko mendi-batzordeak haurren mendi-irteeren 2026-2027 ikasturteko egitaraua zehaztu du. Guztira, 133 haurrek eman dute izena dagoeneko itxita dagoen izen-emate epean. Hilean behin irteera bat egingo dute, urritik ekainera bitartean, mendiaz gozatzeko eta inguruko txokoak ezagutzeko.

Eskaintza Lehen Hezkuntzako 3. mailatik DBHko 2. mailara arteko haurrei zuzenduta dago. Irteerak domeketan egingo dituzte, goizeko 08:00etan abiatuta. Antolakuntzan, bost ikasleko guraso batek parte hartuko du arduradun edo laguntzaile gisa.

Urritik ekainera arte

Egitaraua domekan hasiko da, urriak 25, Donostian egingo den Gipuzkoako Eskolarteko Finalistaren Egunarekin. Ondoren, azaroaren 22an, Elosua, Irukurutzeta eta Azkarate ingurura joango dira; abenduaren 20an, Deba, Mutriku eta Saturraran ezagutuko dituzte; eta urtarrilaren 17an, Gatzagain, Jarindo eta Krutzeta mendatea izango dituzte helmuga.

Urteko lehen hilabeteetan ere izango dira irteerak: otsailaren 14an Urkora joango dira; martxoaren 14an, Beasainen egingo den Ibilaldi Neurtuan parte hartuko dute; apirilaren 18an, Iturriotz, Gazume eta Iturburu mendatea bisitatuko dituzte; eta maiatzaren 16an, Zarautz, San Anton mendia eta Getaria lotuko dituen ibilbidea egingo dute.

Ikasturtea ekainaren 6an amaituko dute, Arraten ospatuko den Eibarko Finalista Egunarekin. Egun horretan domina jasotzeko, gutxienez bost irteeratan parte hartu beharko dute haurrek.

“Haurtzaroan beldur asko izaten dira eta jolasaren bidez beldur horiek kudeatzen ikasten dugu”

PATRICIA URRUTIA • **Antzerki sortzailea eta aktorea** >>>

Beldurra pasatzeko eta, era berean, barre egiteko aukera izango dugu bihar, 17:00etan, Coliseo antzokian, ‘Bidutzi’ antzezlanarekin. ‘Benetan be’ konpainiaren ikuskizuna haurrei eta familiei zuzentzen zaie, txotxongiloekin eta zuzeneko kanta originalekin ordubete ikaragarria pasaraziz. Sarrerak 5 euroan erosi daitezke.

Testua **EKHI BELAR ERRASTI**

Antzezlanaren sortzailea eta zuzendari artistikoa izateaz gain, oholtzara igotzen den aktoreetako bat da Patricia Urrutia, Ion Zumelaga eta Juanma Rodriguezekin batera. Bidutzi, Ainara eta bestelako pertsonaien azalean jarriko dira, eta beldurtzera jolastuko dira Coliseora gerturatzen direnekin.

Bidutzi da antzezlanaren protagonista, baina nor da bera?

Munstro txiki bat da. Inauteri gauean, munstroek eta gizakiek kaleak hartzen dituzten gau horretan, irudimenaren aldeko itun kolektibo hori gertatzen denean, Bidutzik norbait ikaratzea lortu behar du, munstroek duten trantsizio-errituari jarraituz. Zentzu horretan kokatzen da antzezlana. Haurtzaroan beldur asko izaten dira eta adin batetik bestera igarotzerakoan bereziki oldartzen dira beldur horiek. Adin-tarte horietan jarri dugu fokua. Beldur asko izaten diren arren, haurtzaroan jolasaren bidez ikasten dugu beldur horiek kudeatzen. Hori da gure proposamena: beldurtzera jolastea.

Ikuskizuna inauterietan kokatzen da eta, hori lantzeko, inauterien inguruko ikerketa egin zenuten. Nola erabili duzue hori antzezlanean?

Gure sorkuntzak originalak izaten dira. Beti abiatzen gara inguruan ditugun biloba, seme-alaba eta haurrengandik. Eurengan jakin-min, zalantza edo arduraren bat somatzen dugu, eta eurenak bakarrik diren edo gizarte moduan kezka edo zalantza horiek ba ote dauden jakiten saiatzen gara. Nolabaiteko unibertsaltasuna dagoela ikusten dugunean, edo interesa egon daitekeela, hortik tira egiten dugu eta, testua idatzi aurretik, ikerketa abiatzen dut. Kasu honetan, inauterien testuingurua ezin aproposagoa iruditzen zitzaidan gauza bat izatetik beste bat izatera pasa behar garen sasoi horretaz berba egiteko. Ez gara toki jakin bateko inauterietan zentratu, ezagutzen genituen hainbat tokitako inauterietara jo dugu inauterietako elementuen atzean zer dagoen jakiteko. Hori guztia unibertso estetikoan, iruditegian eta musikan islatzen da.

Kontzeptu kontrajarriak dirudite, baina ondo funtzionatzen dute elkarrekin umoreak eta beldurrak?

Elkarrengandik oso gertu dauden kontzeptuak dira. Haurren jolasak, sustoak ematean barre egitea... Txikiak ginenean amatxirenera etxeratzen ginen zapaturo merienda jatera eta gure artean jolastera, eta osaba batek beti proposatzen zigun bere armairuan bizi zen munstroa, Godofredo, ezagutzera joatea. Korridore hura



Beldurra eta umorea uztartzen dituen ikuskizuna da 'Bidutzi'. ITZIAR BASTARRIKA

gogoratzen dut (ziur ez zela nire irudimenean bezain luzea), eta gu eskutik helduta egoten ginen. 4-6 urte izango genituen. Godofredo ezagutzera joaten ginen eta, norbaitek "ah!" esaten bazuen, korrika batean irteten ginen handik, barrez lehertuta. Muga fina dago ikararen eta barrearen artean, eta hor mugitzen gara 'Bidutzin'-n ere: "ai, ai, ai, ja, ja, ja".

Istorioan, Bidutzi harrapatuta gelditzen da eta beste batzuen laguntza behar du hortik irteteko. Mezu garrantzitsua da hori gero eta indibidualagoak izatera eramaten gaituen gizartean?

Ematen du subertsiboa izan daitekeela, baina ez dakit hainbesterainokoa den (barreak). 'Bidutzi' antzezlana lan-talde sendoaren lanaren emaitza da eta horrek balio handia dauka. Testua etxean idatzi nuen eta, idazterakoan, "zein polita den!", pentsatu nuen; baina gero, guztien ekarpenaren ostean (jantziak, musika, zuzendaritza, aktoreak...), berriz begiratu eta "orain bai polita" esan nion neure buruari. Istorioan ere hori gertatzen da. Ainararen pertsonaia ere oso garrantzitsua da. 13 urte ditu eta munduan gehien gustatzen zaiona jolastea da, baita inauteriak ere, eta gau horretan bizitzako trantsizio sasoi horretan aurkitzen dugu. Hiru gazte protagonistek (Aitor da bestea, gaizkilearen laguntzailea) elkarri lagunduko diote, bakoitzak behar duena lortzen, ulertzen edo kudeatzen. Garrantzitsua da hori, jatorri eta adin ezberdinetako ume eta gazteak ikusten ditugulako elkarri laguntzen.

Hiru aktore igoko zarete oholtzara eta hainbat pertsonaia gorpuztuko dituzue. Nolako erronka da zuentzat?

Handia! (barreak) 11 pertsonaia egiten ditugu hiruon artean. 'Benetan be' konpainiaren antzezlanetan konstante bat da hiru aktorek hainbat pertsonaia gorpuztea, baina kasu honetan besteetan baino gehiago agian. Era txukunean egiten dugu eta, horretarako, jantziek, argiztapenak, musika eta txotxongiloek euren papera betetzen dute guri laguntzen. Trebezia handia garatu dugu entseguetan zehar transformatzeko eta pertsonaia ezberdinak egiteko. Hau da, guk ere jolasteko.

Nolako giroa sortzen da zuen ikuskizunetan?

Bertan sortzen den giroak urteko edozein egunetan inauteri gauaz gozatzeko aukera ematen du. Soinu banda originala da, eta abestiak tuntunak eta dibertigarriak dira, baita txotxongiloak ere.

“Idaztea ezagun zaizkizun gauzen atzean ezezagun zitzaizun zerbait topatzea da”

IÑIGO ASTIZ • Idazlea >>>

Iñigo Astiz izan da Harixa Emoten literatura tertulien ikasturteko lehenengo gonbidatua. Idazle nafarra “Monogamoak” (Susa, 2024) ipuin-bildumarekin izan da Eibarren. Umetatik idatzi izan ditu ipuinak, baina orain eman ditu lehenengoz liburu formatuan argitara. Idaztearen zirrikituak, literaturaren eta errealitatearen arteko korapiloak eta irakurlearen irudimenari egiten dion lekua izan ditu hizpide elkarrizketa honetan.

Testua **MAIDER ARANBERRI SARASUA**

Lehen ipuin-bilduma duzu. Zerk motibatu zaitu ipuinak idaztera?

Zehazki ipuinak, umetatik idatzi izan ditut, eta, geroztik ez diot sekula erabat utzi hori egiteari. Beraz, kasu honetan ez da ipuinak idaztea berri zaidana, haiek liburu formatuan argitaratzea baizik. Aurrez poesia liburu batzuk, kronika liburu bat, eta umeentzako klase bateko eta besteko hainbat lan ere eman ditut argitara, eta ez dut uste ipuin liburua aurreko lan horietatik bereizitako ezer denik. Idaztea bera da niretzat interesgarriena, jarduna, eta idazten aritzen naizenez gero, azkenean, goiz ala berandu —gehienetan berandu— beti agertzen da liburu izaten buka dezakeela sentitzen dudan testu multzoren bat.

Nolakoa izan da idazketa-prozesua?

Idaztea, niretzat, beti da ezagun zaizkizun gauzen atzean ezezagun zitzaizun zerbait topatzea. Sorpresa une horregatik idazten dut. Hor zegoenik ere ez nekien hori topatzen duzunean sentitzen duzun harridura eta poz edo susto horregatik. Liburuan badaude aspaldi idatzitako ipuinak, adibidez, eta badaude jadanik ipuin multzo hori liburu bilakatzeko bidean zela sortutako beste testu batzuk ere. Idazten eta berridazten joaten zait denbora, egia esan, harik eta, azkenean, inprentak prozesu hori eteten duen arte. Jartzen eta kentzen aritzen naiz. Hori gustatzen zait. Bide hori batzuetan nekeza da, batez ere, teklatu aurrean eseri, eta, lan egin arren, sorpresa une horiek agertzen ez direnean, edo beti toki ezagunetara heltzen amaituko duzula sumatzen duzunean, baina, beste batzuetan aurkikuntza uneak ere izaten dira, eta hori izaten da ederrena.

Hamasei ipuin oso desberdin bildu dituzu. Elkartzen ditu hariren batek?

Bai, baina ez dakit argi formulatzen zeinek. Aspergarri xamarra egiten zait aurrez ezarritako eta pentsatutako bide bati jarraitzen dioten testuak idaztea. Kazetaria naiz, eta hori da nire lanbidea. Gertatu den zerbait, demagun, albiste edo erreportaje formatura errenditzea. Eta akaso horregatik saiatzen naiz lanetik kanpoko testuekin bestelako bide bat egiten. Aldiro gertatzen zait. Zerbaiti buruzko ipuin bat idatzi behar nukeela pentsatuz gero, gehien-gehienetan hilda jaiotzen da ideia hori, nolabait ere, testuan agertzen doazen esanahaiei eta ezaugarriei adi egon beharrean, haiei entzungor egin, eta soluzio formal bat bilatzen hasten naizelako. Hori egiten dudanetan, bide erdian aspertu egiten naiz gehienetan, eta bukatu gabe geratzen dira ipuinak. Itsu-mustuan hasten ditudan ipuinetan, ordea, uneren batean, aspalditik buruan nerabilen beldur, ilusio edo mamuren batek hartzen du indarra, eta orduan hasten dira niretzat idazteko prozesua interesgarri egiten duten elementuak azaleratzen.



Nola erabakitzen duzu istorio bakoitza nola kontatu? Nola neurtzen duzu zer kontatu eta zer ixildu?
Hain justu ere hori izaten da erronka. Nola egin jakingo banu, seguruenik, ez nukeen bidea hasi ere egingo, edo, okerragoa dena, interesik gabe egingo nukeen.

Liburuan umorea eta deserosotasuna elkarrekin agertzen dira. Zer lortu nahi izan duzu horrekin?
Ez dut uste ezer lortzeko bitarteko bat direnik niretzat; literatura sortzeko dudan moduaren sorburuan bertan dauden elementuak dira. Nik mundua horrela bizi dut, egia esan, pixka bat umorez eta pixka bat deseroso, eta dena aldi berean. Badago aipu oso polit bat, uste dut Jonas Trueba zinemagilearena, esaten duena maitasun film gehienetan lehenik pelikula pentsatzen dutela, eta gero, nolabait, saiatzen direla maitasuna gehitzen. Baina, noski, horrela ezin da film batean maitasuna irudikatu, eta interesgarriagoa da filma maitasunarekin egiten saiatzea, horrek agian eramango duelako filma maitasunezko bilakatzera. Umorearekin eta deserosotasunarekin antzeko zerbait egiten dut nik ere.

Nola eusten zaio umorearen eta seriotasunaren arteko korapiloari? Eta literaturaren eta errealitatearen artekoari?
Bi kezka horiek oso propio ditut, eta denbora askoz izaten ditut buruan bueltaka. Niretzako idazteko jardunean jarraitzera lotzen nauten bi galdera handi dira horiek, eta korapilo horietan jarraitzea bera iruditzen zait interesgarriena, neure burua haiei buruzko soluziorik topatzera behartu beharrik gabe.

“Nik mundua horrela bizi dut, egia esan, pixka bat umorez eta pixka bat deseroso, eta dena aldi berean”

Zer ari zara irakurtzen une honetan, gomendiorik?
Samantha Schweblinen 'El buen mal' pasada bat iruditu zitzaidan, Ane Zubeldiaren 'Kontra' poema liburu zoragarria da, Unai Elorriagak itzuli duen Seuman O'Kelly idazle irlandarraren 'Ehulearen hilobia' nobelarekin aspaldiko irakurraldirik onena izan nuen udan, eta Asier Mendizabal artistak Bilboko Arte Ederren museoan duen erakusketarako idatzitako katalogoko testua ere, adibidez, bere testuak izan diren bezala, zoragarria da.



Datorren astean jokatuko da 22. San Andres pintxo lehiaketa

S.H. Urriaren 28an (eguaztena) eta 29an (eguena) ospatuko da Arrate Kultur Elkarteak antolatutako Eibarko tabernarien arteko XXII. San Andres Pintxo Lehiaketa. Aurtengo edizioak harrera bikaina izan du, eta guztira 20 tabernek eman dute izena: Amesti, Azkena, Baisi, Baratze Gourmet, Beleko, Bodega, Bossa, Bulebu, Chido, Gure Kaiola, Gure leku, Kontent, Koskor, Kultu, Lusai, Moxo, Super Trouper, Topa-leku, Trinkete eta Txoko. Proposamen guztiak tabernetan lagako dituzten esku-orrietan ikusi ahalko dira.

Antolatzaileen berbetan, "oso pozik gaude parte-hartzearekin, eta eskerrak eman nahi dizkiegu izena eman duten ostalari guztiei. Herritar guztiak animatu nahi ditugu lehiaketan parte hartuko duten tabernetara hurbildu, pintxoak dastatu, eta ekimenaz gozatzera".



'Gau Beltza' beldurrezko esperientzia egingo da Itzion

S.H. Domu Santu egunaren bezperan, urriaren 31n, *Gau Beltza* beldurrezko esperientzia egingo da estreinekoz Eibarren, Itzio BHI institutuan, 19:00etatik 00:00etara (sarrera doakoa izango da). *Basque Horror* ekimenak proposatuta, Eibarko boluntario talde batek antolatu du jarduera, Udaleko Kultura Sailaren laguntzarekin. Parte-hartzaileak ailegatu ahala sartuko dira, hiru eta bost lagun arteko taldetan. Antolatzaileen arabera, esperientziak hamar minutu inguru iraungo du, "eta iluntasuna, eszena beldurgarriak, argi estroboskopikoak, tentsio uneak eta adrenalina izango dira protagonista". Horregatik, 14 urtetik gorakoentzat gomendatzen dute (12-14 urte arteko gazteak heldu batekin joan beharko dira). Informazio gehiagorako, mezua idatzi basquehorror@gmail.com helbidera, edo Instagam kontura (@basquehorror).



'Deporreko Emakumiak' proiektuko materiala eskuragarri jarri dute

S.H. Eguenean aurkeztu zuten *Deporreko Emakumiak* proiektuari harrera beroa egin diote, eta horren inguruan sortu duten materiala (ikus-entzunezkoa, lekukotzak, elkarrizketak idatziz, Ardantzako iturriaren alboan margotu duten muralaren argazkiak...) Eibarko Klub Deportiboaren webgunean eskuragarri ipini dute dagoeneko.



Eibarko Txaranga Eguna ospatuko da bihar Eibarren

S.H. Ustekabe txarangak eta Eibarko Ostalarien Elkarteak antolatuta, Eibarko Txaranga Eguna ospatuko da bihar (zapatua). Horrela, 19:00etatik aurrera, bost txaranga arituko dira, aldi berean, herriko kaleak musikarekin girotzen: aurten 25 urte bete dituen Eibarko Ustekabe txarangarekin batera, 30. urteurrena bete duen Ermuko Irulitxa, UK03 (Urola Kosta), Lasko (Tolosa) eta Elutxa (Lesaka) txarangak hartuko dute parte biharko prestatu duten topaketan.



Eibarko Artisten Elkartekoak Gaztela-Mantxan egon dira

S.H. Eibarko Artisten Elkarteko bazkideek urteroko bidaia egin dute. Aurten Gaztela-Mantxan ibili dira, Albacete, Campo de Criptana eta beste toki batzuk ikusten. Handik bueltan, berehala hasi dira lanean, domekan (urriak 25) egingo den Eibarko aire zabaleko pintura lehiaketa antolatzen. Udalarekin elkarlanean antolatzen duten lehiaketak sari ekonomiko garrantzitsuak banatuko ditu, eta tokiko artisten parte-hartzea sustatzeko sari berezia ere izango du. Parte-hartzaileek udaletxetik Amañarainoko eremua izango dute margotzeko. Informazio gehiago Udalaren web orrian.



Eibarko XXVI. Jardunaldi Mikologikoak asteburuan

S.H. Eibarko Klub Deportiboak XXVI. Jardunaldi Mikologikoak antolatu ditu urriaren 24rako (zapatua) eta 25erako (domeka). Zapatuan Errebal Plazako B aretoan egingo dute lehen hitzordua, 16:00etatik 20:00etara. Aranzadi Zientzia Elkarteko mikologia adituek zaleek eramandako aleak sailkatuko dituzte, eta onddoen jangarritasunari buruzko nahiz beste edozein gairi lotutako zalantzak argitzeko prest egongo dira. Eta domekan, 10:30etik 14:00etara, aurreko egunean zaleek bildutako eta Aranzadiko adituek sailkatutako onddoak erakutsiko dituzte, Errebalen. Horrez gain, Eibarko Klub Deportiboak prestatutako pintxoak dastatzeko aukera egongo da.

Azaroaren 2tik 7ra egingo da Asier Errasti Film Laburren Jaialdia





S.H. Azaroaren 2tik 7ra bitartean egingo da Asier Errasti 27. Eibarko Film Laburren Jaialdia, Coliseo antzokian. Aurreko edizioetan bezala, Plano Corto elkarteak Udalaren laguntzarekin antolatutako lehiaketara aurkeztu diren lanak proiektatuko dituzte, astelehenetik barixakura, 19:30ean hasita. Sarrera doan izango da. Sari-banaketa, berriz, azken egunean, zapatuan egingo dute. Aurten, gainera, orain arteko sariekin batera (fikziozko lan onenak, euskarazko onena, eta animaziozko onena) , edizio honetan lehenengoz emango den EITB Sari Berezia ere emango da.

SUDOKUA

ERRAZAGOA

5			7	6				
					1			8
	7			2		9	4	
4	9						6	1
		1		4		8		
8	2						9	3
	5	8		9			2	
7			4					
				8	6			7







ZAILAGOA

	7			2		1		
9		1			3			4
	4		7					3
	5							
1	3	7				4	6	5
							1	
2							7	
7			2			8		9
		8		7			3	

LABIRINTOA





Urriak 23 / Urriak 29

BARIXAKUA 23

BARIXAKUAK JOLASIAN
17:00 Bi eta zortzi urte bitarteko umeentzako doako egitasmoa, ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik. Torrekua.

ASANBLADA
18:30 Debabarreneko Grebarako Gazte Asanblada, Gazte Koordinadora Sozialistak antolatuta. Arrate Kultur Elkartea (Kultu).

KOMEDIA FEST
20:30 "En directo" umorezko ikuskizuna, Yunez Chaiben eskutik. Uni Eibar-Ermua.

ZAPATUA 24

MARCAN HUELLA FEST
09:00 Txakur-kros solidarioa. 10 euro (izen-ematea, poltsa, pintxoa eta ur-botila). Arrate.

LUZAKETA TAILERRA
09:30/10:15 Luzaketa tailerra, Nuria Rodriguezen eskutik. Ipuruako Merkatu Plaza.

AZOKA
10:30/14:30 Kontsumo Arduratsu eta Ekologikoaren IV. Azoka. **10:30/11:30** EKOgosaria, zuzeneko musikarekin. **11:30** Bisita gidatua, REAS Euskadiren "Bizitza erdigunean, ekonomia solidarioari buruzko begirada feminista" erakusketara. **11:30/13:30** Haurrentzako tailerrak. **12:00** "Patata beroa", kontsumo arduratsuari buruzko dinamika. **12:00/14:00** EKOerrezetak, Miriam Chefintegrativarekin. **14:00** Otarren zozketa eta kartel lehiaketaren sari-banaketa. Antolatzaileak: Eibarko Udala, Biolur, Debemen, ENEEK-Ekolurra, Egoaizia eta Aldatzen. Errebal Plazia.

AMAÑAKO GAZTE EGUNA
12:30 Trikipoteoa. **16:00** Mus txapelketa. **18:00** Txokolate-jana. **18:30** Elektrotxaranga: Josetxo ta Alayak. **21:30** Kontzertuak: Emeka, Mutiko y Marmitako Trap Band, Muxutruk Erromeria. **23:00/02:00** Puntu morea. Antolatzailea: Amañako Gazte Asanblada. Amaña.

ANTZERKIA
17:00 "Bidutzi" (Benetan Be Teatroa) haurrentzako antzezlana. 5 euro. Coliseo.

LIBURU-AURKEZPENA
18:00 "Yakaar, cartografía de la esperanza", Cheikh Mbacke Lo-ren eskutik. Doan. Portalea (areto nagusia).

TXARANGA EGUNA
19:00 Txaranga Eguna Eibarren: Ustekabe, Irulitxa, UK03, Lasko eta Elutxa. Ustekabe txarangak eta Eibarko Ostalarien Elkarteak antolatuta.

DOMEKA 25

PINTURA-LEHIAKETA
08:30/10:00 Aire zabaleko XLIX. pintura lehiaketarako izen-ematea. **14:30** Saribanaketa. Eibarko Artisten Elkarteak antolatuta. Udaletxeko patioa.

JARDUNALDI MIKOLOGIKOAK
10:30/14:00 Eibarko XXVI. Jardunaldi Mikologikoak. Perretxikoen erakusketa eta dastaketa. Antolatzailea: Eibarko Klub Deportiboa. Errebal Plazia.

MUSIKA
12:30 Eibarko Musika Bandaren kontzertua. Doan. Coliseo.

KOMEDIA FEST
20:30 "En mi cabeza sonaba mejor" umorezko ikuskizuna, Laura del Valen eskutik. 22 euro (20 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.

MARTITZENA 27

18:00 Osasun digitalari buruzko prestakuntza-saioa (Doitu programa), familiei tresnak eta aholku praktikoak emateko. Telmo Lazkano eta Edurne Emazabelen eskutik. Portalea.

AUZOAK MARTXAN
18:30 Herritarren parte-hartzerako lansaioa, Ipuruan bizi direnentzat (aurretik izena eman behar da). Ipuruako Merkatu Plaza.

EGUAZTENA 28

AUZOAK MARTXAN
18:30 Herritarren parte-hartzerako lansaioa, Urkin bizi direnentzat (aurretik izena eman behar da). Arrateko Andra Mari ikastetxea.

PINTXO LEHIAKETA
Eibarko Tabernarien Arteko "San Andres Saria 2026" XXII. Pintxo Lehiaketa. Arrate Kultur Elkarteak antolatuta. Izena eman duten tabernetan.

EGUENA 29

HITZALDIA
10:00/12:00 Antxon Olaberen hitzaldia. Adinekoen Nazioarteko Egunaren egitarauaren baitan. Sarrera librea. Portalea.

JAIALDIA
17:30 Musika eta dantza jaialdia: abesbatzak, gitarrak eta dantzak. Antolatzaileak: Untzaga gizarte zentroa, ENE (Eibarko Nagusien Elkartea) eta Kaleetan Kantuz (Ikasten). Adinekoen Nazioarteko Egunaren egitarauaren baitan. 3 euro. Coliseo.

AUZOAK MARTXAN
18:30 Herritarren parte-hartzerako lansaioa, Urkizun bizi direnentzat (aurretik izena eman behar da). Urkizu ikastetxea.

PINTXO LEHIAKETA
Eibarko Tabernarien Arteko "San Andres Saria 2026" XXII. Pintxo Lehiaketa. Arrate Kultur Elkarteak antolatuta. Izena eman duten tabernetan.

ERAKUSKETAK

Urriaren 25era arte
"Portalea, 30 urte" atzera begirako erakusketa. Portalea (erakusketa aretoa).

Urriaren 30era arte
Izan Inurri elkartearen "(min)bizi euskal kultura eta feminismotik, minbiziaren imajinario kolektiboa eraldatuz". Andretxea.

Urtarrilaren 10era arte
"Industria, berrikuntza eta mugimendua", G.A.C. enpresaren mendeurrenean. Armagintzaren Museoa.

ZINEA **COLISEO**



"Leones en invierno"
THRILLER. DRAMA

2026/Espainia/117'
Zuzendaria: Albert Pintó
Aktoreak: Luis Zahera, Roberto Álamo, Luis Callejo
Aitatasuna. Krimena

1 ARETOA
- **24an:** 17:00, 19:45, 22:30
- **25ean:** 17:00, 20:00
- **26an:** 19:30



"La bola negra"
DRAMA. ERROMANTZEA

2026/Espainia/155'
Zuzendaria: Javier Calvo, Javier Ambrossi
Aktoreak: Guitarricadelafuente, Miguel Bernardeau, Carlos González, Penélope Cruz
Homosexualitatea

2 ARETOA
- **24an:** 22:30


ANTZOKIA
- **26an:** 19:30



"Mis queridísimos padres"
KOMEDIA

2026/Frantzia/86'
Zuzendaria: Emmanuel Patron
Aktoreak: André Dussollier, Miou-Miou, Arnaud Ducret
Familia. Gurasotasuna

2 ARETOA
- **24an:** 19:45
- **25ean:** 20:00
- **26an:** 19:30



"Mascotas al rescate"
ANIMAZIOA. ABENTURAK. KOMEDIA

2026/Frantzia/99'
Zuzendaria: Benoît Daffis, Jean-Christian Tassy
Animaliak. Trenak/Metroak

2 ARETOA
- **24an:** 17:00
- **25ean:** 17:00



www.etakitto.eus
zorion-agurrak

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu aldizkarian eta gure webgunean. Informazioa guri helarazteko bi aukera daude: FORMULARIO bat betetzea ETAKITTO.EUS webgunean (QR-aren bidez sartu zaitezkete), edo presentzialki gure bulegoan. Argazki arrunta: 4 euro. Bikoitza; 8 euro (%20ko deskontua elkarteko bazkideentzat)



Zorionak **OINATZ**, astelehenian 14 urte beteko dozu eta. Musu haundi bat famelixaren eta, batez be, Bernat, Lur eta Naikeren partez.



Zorionak **DANEL**! Hillaren 27xan 5 urte beteko dozuz eta. Zorionak, gure mutiko! Edarto ospatuko dogu asteburuan! Etxekuen partez.



Zorionak **MARINA!** Musu haundi bat zure famelixaren eta. batez be, Martin eta lehengusuen partez. Asko maite zaittugu!



Zorionak **UNAX**! Urtetxua egin zenduan atzo! Musu haundi bat famelixa guztiaren eta, batez ere, Uxueren partez.



Zorionak **ENEKO**! Bixar 9 urte beteko dozuzelako. Mutil haundi! Patxo pilla bat zure famelixaren partez!



Zorionak **IZARO**! Igandian 2 urte beteko dozuz eta. Asko maite zaittugu. Muxu haundi bana famelixaren partez etxeko txikixari.



Zorionak **PAULE**! Igandian 4 urtetxo betetzen dozuz eta. Oso ondo pasau eta musu bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak **MIREN**! Etxeko guztien partez!



Zorionak **DANEL**! Martitzenian 6 urte bete dozuz eta. Segi horren mutil alaia izaten. Musu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak **AITOR**! Zapatuan 9 urte bete zenduazen eta! Asko maite zaittugu.



Zorionak **HAIZEA**! Atzo, urriak 22, lehenengo urtetxua bete zenduan. Segi hain alaia izaten. Musu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak **JON**! Atzo, urriak 22, 6 urte bete zenduazen eta. Patxo pilla bat famelixaren eta, batez be, Eleneren partez.



Zorionak **KEPA** eta **JULI**! Zuen 50. urrezko ezteietan. Etxekuen partez.



Zorionak **SARA,** printzesa! Azaruaren 1ian 3 urte beteko dozuz. Asko maite zaittugu. Zure famelixaren eta, batez be, Mararen partetik.



Zorionak **LEXURI**, *bonboi*! Atzo 6 urte egin zenduazelako. Zorionak famelixa osuaren eta, batez be, Enaien partez.



Zorionak **IRUNE**! 10 urte beteko dozuz 30ian. Musu haundi bat famelixaren partez!

Iragarki laburrak

943 20 67 76
aldizkaria@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

1. ETXEBIZITZA
1.1. Salgai
1.2. Errentan
1.3. Konpartitzeko
1.4. Etxe trukaketa
2. MOTORRA
2.1. Salgai
3. LOKALAK
3.1. Salgai
3.2. Errentan
3.3. Konpartitzeko
4. LANA
4.1. Lan bila
4.2. Langile bila
5. IRAKASKUNTZA
5.1. Eskaerak
5.2. Eskaintzak
6. DENETARIK
6.1. Salgai
6.2. Eman
6.3. Galdu/Aurkitu
6.4. Bestelakoak

3. LOKALAK

3.2. Errentan

- Abontzan garajea alokagai. Hilean 110 euro. 615712216.

4. LANA

4.2. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketak egiteko, eta baita haurren zaintzarako ere. Aste barruan eta asteburuetan orduka edo interna moduan. Titulu soziosanitarioarekin. 632768653.
- Emakumea eskaintzen da umeak eta nagusiak zaintzeko (gauez). Astelehenetik zapatura (goizez). 6506906729. Sandra.
- Emakumea eskaintzen da zaintza lan puntalak egiteko, garbiketa lanetarako, eroskatak egiteko edo etxetik irten ezin direnei laguntzeko. Auto propioa daukat, ospitalera eramateko. 612223075.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, orduka astelehenetik ostiralera. Baita gauez ere etxe zein ospitaletan. 641692366.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko arratsaldez, gauez edota asteburuetan. Ziurtagiri soziosanitarioarekin. 631593925.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu edota garbiketa lanetarako, orduka, asteburuetan soilik. 12:30etik 16:30era. 613287661,
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Erabateko disponibilitatea. 623968621. Rosa.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko interna moduan edo orduka. Etxeetan edo ospitaletan. Ziurtagiri soziosanitarioarekin. 605555578.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko interna moduan edo orduka. Etxeetan edo ospitaletan. Ziurtagiri soziosanitarioarekin. 645261105.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko etxeetan edota ospitaletan, ziurtagiri soziosanitarioarekin. Baita garbiketa lanetarako ere. 667060292.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu edota garbiketa lanetarako. Esperientziarekin. 632787873.
- Emakumea eskaintzen da asteburutean nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Ziurtagiri soziosanitarioarekin. 632624579.
- Gizona eskaintzen da ileapaintzaile lanak egiteko, garbiketa lanak egiteko edota nagusiak zaintzeko. 614 679 270.
- Emakumea eskaintzen da interna bezala lan egiteko. 602427614.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, astelehenetik zapatura. Esperientzia eta ziurtagiri soziosanitarioarekin. 652532589.

4.2. Langile bila

- Administraria behar da 5 orduko jardunaldirako Eibarko enpresa batean. Bidali curriculuma: comercial@casarsistemas.com"
- Auxiliar/higienista behar dugu Ermuko hortz klinika batean urriaren amaieratik ekainaren erdialdera arte lanaldi osoan amatasun baimen bat ordezkatzeko. Bidali kurrikuluma niklinika@gmail.com helbide elektronikora.
- Beleko tabernan zerbitzari bila gabiltza. Gurekin lan egin nahi baduzu, idatzi belekoeibar24@gmail.com helbidera.

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- Euskaraz eta ingelesez C1 duen unibertsitate ikaslea naiz eta edozein lan egiteko prest nago. 688605585.
- Lehen Hezkuntzako Graduko ikaslea eskaintzen da umeak zaintzeko eta Lehen Hezkuntzako ikasleei eskola partikularrak emateko. Arduratsua eta pazientziaduna. 699913163.
- Marrazketa eta pintura klaseak ematen dira, haur zein helduentzat. Goizez eta arratsaldez. 646238458.
- DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

5.3. Eskaerak

- Irakaslea behar da Batxilergo 1-eko ikasle bati matematika, fisika eta kimikako klaseak etxean emateko. 636686040.
- Euskara irakaslea behar da DBH 3ko ikasle bati eskola partikularrak emateko. 65373 5874, 13:00etatik aurrera deitu.

6.4. Bestelakoak

- Umeak eramateko City Mini markako aulkia salgai. 4 erroberaduna. Poltsa eramatekoa barne. 85 euro. 650113060.

OSASUN GIDA

MEDIKUNTZA ESTETIKOA





OKULISTAK



PODOLOGOAK





PSIKOLOGOAK







TERAPIA NATURALAK



errigora

Auzolanean euskara

sustraitik espaziora

Eskatu zure saskia eta eman **%25 Nafarroa erdi eta hegoaldeko euskalgintzari**

errigora.eus

urriak 22 - azaroak 12



Saski beltza 60€



eko **Saski berdea** 65€



Saski gorria 75€

+ osagarria: **“euskararen haziak ereiten” egutegia** 10€

